

PUNTUAZIOA EGOKI ERABILTZeko GIDA: OINARRIAK, JARRAIBIDEAK ETA AHOLKUAK

Juan Garzia Garmendia

Ikasmaterialetako hizkuntzaren
egokitasun-irizpideak finkatzeko
Aholku Batzordea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2014ko apirila
Ale kopurua: 2.000 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Maketazioa: EkipoPO
Inprimaketa: Ikur, S.A.
ISBN: 978-84-457-3343-1
Lege-gordailua: BI 753-2014

Sarrera

Badira hamar urte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, EIMA programaren ildotik, estilo-liburu baten proiektuari heldu ziola. Joxe Ramon Zubimendiren *Ortotipografia* izan zen estilo-liburu horren lehen liburukia, 2004an argitaratua. Ondoren, 2005ean, Juan Garziaren *Kalko okerrak* eta Elhuyar Fundazioko koordinatzaileekin talde-lanean eginiko *Onomastika* liburukiak kaleratu ziren. Alfontso Mujikaren *Letra larriak erabiltzeko irizpideak*, 2008an, eta Andres Alberdiren *Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan*, 2009an, etorri ziren geroago. Azkenik, 2011n, Jose Ramon Etxebarriaren *Zientzia eta Teknikarako Euskara Arautzeko Gomendioak* eta Patxi Petrirenaren *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak* argitaratu zituen Sailak.

Haien osagarri dator Juan Garziaren *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak* izeneko hau, estilo-liburuaren zortzigarren liburukia.

Pausoz pauso osatuz doan estilo liburu hau euskaraz jarduten duten milaka irakasleek, euskal ikasliburuen sortzaile-prestatzaileek eta alor horretan diharduten argitaletxeek eskertuko dutelakoan gaude. Teknologia berriak eskaintzen dituen erraztasunak bitarteko, liburuki guztiak, paper-euskarrian ez ezik, Interneten ere badaude kontsultagai, Sailaren webgunean. Hauxe da webgune barruko ibilbidea: *Euskara > EIMA > Eskola-materialen estilo-liburua*.

Euskaltzaindiaren goi-gidaritza, bermea eta oniritzia nahi izaten du Sailak, Euskararen Legearen espirituari jarraikiz, eta Akademiak egindako gomendioei orpoz orpo jarraitzen saiatzen da beti. Beste liburuekin egin den bezala, Euskaltzaindiari aurkeztu zaio honako liburuki hau ere, irizpen eske. Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak aztertu du lana, eta egokia iruditu zaio bertan

jasotzen dena. Aldeko irizpen horrekin batera, zenbait hobekuntza-proposamen egin ditu Akademiak, puntu jakin batzuetan, eta horiek guztiak zintzoki hartu dira kontuan eta baita dokumentura ekarri ere. Honatx, irakurle, hitzez hitz, Euskaltzaindiaren Corpus batzordeak esana:

Euskaltzaindiaren oniritzia

Euskaltzaindiko Corpus batzordeak –esker oneko goraipamena egin ondoren– puntuz puntu aztertu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, 2013ko ekainaren 25ean, irizpen eske, Euskaltzaindiari aurkeztutako Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak lana.

Corpus batzordeak, 2013ko urriaren 18an egindako bilkuran, aztertu ondoren, egoki eta taxuzkoa deritzo Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak lan horri, eta oniritzia eman dio.

Oniritzi honek ez ditu ez murriztuko eta ez baldintzatuko Euskaltzaindiak gerora alor horretan erabaki ditzakeenak.

Besterik ez, honenbestez. Beti bezala zeu zara, irakurle, gai hauetan unean uneko epaile eta eragile nagusi. Zeuk ikusiko duzu argibide eta gomendio hauek noraino diren zure beharretarako egoki, eta zer neurritan hobekizun. Eguneroko idatz-langintza saiatuak erakusten digu argien, guztioi, honelako gomendioen irismena eta balio-indarra zenbaterainokoa den. Errespetu handia diogu idazle trebatuaren bere baitariko esperientziari. Badakigu, jakin, gomendioak bidea egiten laguntzeko direla: lagungarri izan behar dutela, ez bidegile saiatuaren behaztopa-harri. Euskararen onerako, ahalegin honetan asmatu izana da gure asmo eta desira bakarra. Zernahi dela ere, jakizu zure ekarpen baliotsuak jasotzeko prest gauzkazula noiznahi. Hemen gauzkazu: huisseus4@ej-gv.es.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eskertu nahi ditu, alde batetik, egileak burutu duen lana eta, beste aldetik,

Ikasmaterialen Aholku Batzordeak, EIMAKo onespén-aztertzaileek eta hainbat adituk liburuki honi egin dizkioten ekarpenak.

Bidean da hurrengo alea ere. Urratsak egiten ari da Saila eginbide horretan, eta, berandu baino lehen, argitaratzen saiatuko da.

Gasteizen, 2014ko urtarrilaren 30ean

ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO
Hezkuntza sailburuordea

Aurkibidea

Hitzaurrea	13
1. Atarikoak	17
1. 1. Puntuazioaren funtsa	17
1. 2. Puntuazio-markak eta haien izenak.....	19
1. 3. Hurrengo ataletan zer	20
1. 4. Gida honetatik kanpo geratzen direnak.....	21
2. Puntuazioa: jarraibide praktiko batzuk	23
2. 1. Puntua.....	23
2. 2. Koma	23
2. 2. 1. Komarik gabe idaztekoak	23
2. 2. 2. Komaz idaztekoak	27
2. 2. 3. Komaz zein komarik gabe idaztekoak	30
2. 3. Puntu eta koma	34
2. 4. Bi puntuak.....	35
2. 5. Etenpuntuak	35
2. 6. Galdera-marka eta harridura-marka.....	35
2. 7. Parentesiak eta marra pareta	36
2. 8. Marra bakarra	36
2. 9. Komatxoak.....	36
3. Puntuazio-kontuak lantzeko zenbait kontzeptu	36
3. 1. Paragrafoa	36

3. 2. Esaldia	37
3. 3. Galdegaia eta mintzagaia	37
3. 4. Tartekiak	38
3. 5. Juntadura eta alborakuntza	40
4. Esaldien artean erabiltzeko puntuazioa	43
4. 1. Segidako esaldiak puntuaz bereiztea	43
4. 2. Esaldiak puntu eta komaz elkartzea	44
4. 3. Esaldiak bi puntuz elkartzea	45
4. 4. Esaldiak juntaturaz elkartzea	47
4. 5. Hiru esaldi juntatzean zer puntuazio erabili	48
4. 6. Aditz-isiltzea	49
4. 7. Juntagailuaren segidako tartekiak	50
4. 8. Beste puntuazio-marka batzuk	51
4. 8. 1. <i>Etenpuntuak</i>	51
4. 8. 2. <i>Galdera-marka eta harridura-marka</i>	52
4. 8. 3. <i>Parentesiak eta marra pareta</i>	53
4. 8. 4. <i>Elkarrizketa-marka</i>	53
4. 8. 5. <i>Aipu-markak: komatxoak</i>	54
4. 8. 6. <i>Parentesi, marra pareta eta komatxoaren tipografiaz</i>	54
5. Esaldi barnean erabiltzeko puntuazioa: koma soilaren esparrua	57
5. 1. Koma noiz	57
5. 1. 1. <i>Subjektuaren eta predikatuaren artean, komarik ez...</i>	59
5. 1. 2. <i>Esaldi barruko juntadurari dagokion koma</i>	60
5. 2. Mendeko perpausen puntuazioa	60

5. 3. Banakarien puntuazioa (<i>bai... bai...; edo... edo...</i>).....	62
5. 4. Zerrendaketa konplexuen puntuazioa.....	62
6. Tartekien puntuazioa	65
6. 1. Parentesiak eta marra pareta.....	66
6. 2. Bi puntuak eta marra pareta.....	67
6. 3. Tarteki arrunten oinarritzko sailkapena.....	68
6. 4. Esaldi diren tartekiak.....	69
6. 5. Esaldi-osagai izan daitezkeen tartekiak	70
6. 6. Lokailuak	71
6. 6. 1. <i>Foku-adberbioak</i>	72
6. 6. 2. Hots, alegia <i>eta gisakoak</i>	73
6. 7. Deikiak	75
6. 8. Aposizio-tartekiak.....	76
Eranskinak	79
Esaldiaren informazio-antolaera	79

Hitzaurrea

Puntuazioaren garrantzia handiagoa da uste arruntak aitortu ohi diona baino. Gero eta jabetuago daude horretaz testugileak eta testuen erabiltzaileak. Testu idatzietan kohesioa eta irakurgarritasuna bermatzeko eta testua egoki antolatzeko baliabide nagusietarikoa da puntuazioa: sintaxi-egiturarekin eta funtzio informatiboekin estu lotua dago eta, kasu batzuetan, elementu gramatikalen funtzio eta pisu berekoa da.

Puntuazioaren eginkizun funtsezko horri heldu nahi izan diogu lan honetan. Ez da hau, beraz, puntuazio-marken katalogo huts bat, adibide-kasuistika nolabaiteko batez hornitua: puntuazioaren *erabilera* du gida honek ardatz, eta hura sistematizatu nahi du. Erabiltzaileak, praktikan, ez du hartzen puntuazio-marka bat eta gero ikusten ea zer egin dezakeen harekin. Alderantziz da kontua: testu bat antolatu behar du, eta testu horren unean uneko beharren arabera baliatzen da puntuazio-marka batez edo bestez.

Horregatik, puntuazio-marken erreperteriotik abiatu beharrean, puntuazio-zereginen sailkapenetik helduko diogu azalpenari. Honako hauek izango dira puntuazio-zereginaren araberrako bloke nagusiak: esaldiak bereiztea, esaldien barruko informazio atalak markatzea eta tartekiak txertatzea. *Gidaren* amaieran, aurkibideak emango dio aukera irakurleari kontrako bidetik ere heltzeko liburuari. Hots, marka bakoitzak dituen askotariko zereginen hariari jarraitzeko bidea eskaintzen da amaiera horretan.

Sarrera bat ere paratu dugu, puntuazioaren ikuspegi orokor bat emanez. Gero, bloke bakoitzeko azalpen xeheetan sartu aurretik, beste bi lagungarri ere badatoz: batetik, oinarrizko arauen eta jarraibideen aurkezpen labur bat, gero blokeka sakondu eta osatuko denaren aurrerakin modukoa; eta, bestetik, azalpenetan erabiliko diren nozio batzuei buruzko argibidetxoak.

Batez ere testugileentzat eta testu-zuzentzaileentzat pentsatua denez lana, ahalik eta osoen eta ahalik eta xeheen heldu nahi izan diogu puntuazioaren erabileraren gai zabalari. Testugile, ordea, ia edonor da neurri batean edo bestean, eta bakoitzak ikusiko du zein den berari egokitzen zaion sakontze-maila. Oinarrizko arauak eta jarraibideak aski izan ditzake, beharbada, aurretik gaia apur bat ezagutzen duenak. Gero, jakina, irizpideok eguneroko praktikan kontrastatuz, hortik aurreragoko auziak argituz joan daiteke, irizpideon aplikazioa zorrotzuz, bere kabuz zein gure azalpen gehigarrion laguntzarekin. Aplikatu, hala ere, norberak aplikatu beharko ditu. Jarraibideok ez dira abiapuntu eta lagungarri bat baino: senez eta zentzuz baliaitzekoak, testugilearena baita erantzukizuna.

Gida hau ez da inolako panazea. Irizpideak falta dituenari hutsune hori betetzen lagundu nahi dio. Irizpide propioak dituenari bereak zerekin kontrastatu eskaini nahi dio. Bidea egiteko dira gidak, eta beti hobegarri.

Puntuazioaren erabileran zati bat aukerakoa edo estilistikoa izateak, nolana ere, ez gintuzke eraman behar pentsatzera hala denik guztia. Are gutxiago, dena arbitrariotzat eta subjektibotzat hartzera. Behar den malgutasuna eta estilo pertsonalari dagokion askatasun-tartea gorabehera, bistakoa da badela sistema bat, aski finkoa eta bere barne-logika duena.

Hemen proposatzen den puntuazioa ez da, inola ere, testugilearen askatasuna murrizteko agindu sorta bat. Aitzitik, aukerak eman nahi dizkio, beraren esku utziz erabakia, berea baitu betiere erantzukizuna. Kasu askotan, izaten da egoki puntuatzeko bide bat baino gehiago, eta, inoiz, konpromisoan gertatuko da idazlea arauen artean zeini edo zeri eman lehenatasuna. *Gidak* berak seinalatuko ditu halako kasu batzuk, baina ez noski guztiak. Kontuan hartu behar da, izan ere, lauzpabost markaz osaturiko

kode sinple batera transkribatu behar duela puntuazioak prosodia, hots, ahozkoan hain aise eta halako ñabarduraz bereizten diren doinu-xehetasun askotarikoak.

1. Atarikoak

1. 1. Puntuazioaren funtsa

Hizkuntza, izatez, ahozkoa da, mintzatua. Ahozkoan esaldien joskera islatzen duten doinu-gorabeherak (intonazioa) idatzira transkribatu behar dituzte puntuazio-markek. Horrek esan nahi du badirela bi abiapuntu (elkarrekin lotuak) puntuazioa erabakitzeko: batetik, esaldien antolaera; bestetik, esaldion doinu-gorabehera (antolaera hori akustikoki islatzen duena). *Doinu-gorabehera* horiek dira gakoa (bestelako izenez, *inflexioak*). Halako gorabehera batek zerbait erabakigarria adierazten duenean, hain zuzen ere, *tonema* esaten zaio, fonemen paralelismoz. Fonema batek, jakina denez, hots bat kontuan hartzekoa dela adierazten du. Tonema batek, berriz, tonu-inflexio –doinu-gorabehera– bat kontuan hartzekoa dela seinalatzen du.

Bidenabar, testuan han-hemenka gertatzen diren anbiguo-tasunak saihesten ere laguntzen du puntuazioak, osagaien mugak egoki bereiziz.

Puntuazioaren oinarrian (ahozkoan doinuak islatzen dituen) sintaxi-egiturak daudela jakinik, beste ondorio bat atera behar da bertatik: hizkuntza bakoitzaren joskerara egokitu beharra dauka puntuazioak. Zenbat eta desberdinagoak izan bi hizkuntza sintaxiaren aldetik, orduan eta desberdinagoak izango dira puntuazioaren xehetasunak hizkuntza bakoitzean.

Euskarari dagokionez, hizkuntza hein handian postpositiboa izanik, auzo-erdara prepositiboekiko aldea simetrikoa izango da maiz; hots, ispiluan bezala ikustekoa: gauza bera, alderantzizko noranzkoan.

Har dezagun adibide argi bat. Erdara prepositibozko perpaus bat, lehenik:

cuando lo vio sentado a la entrada...

Eta, kontrastez, euskarazko baliokide postpositiboa:

... sarreran eserita ikusi zuenean

Cuando eta *-nean* markek, besteak beste, perpausaren mutur bietariko baten muga markatzen dute: erdaraz, hasierako muga; euskaraz, berriz, amaierakoa.

Demagun orain (hala gertatuko baita) komeni zaigula, testuinguru jakin batean, etenpuntuek adierazten duten beste perpaus-mutur *ireki* -mugatu gabe, luzagarri- hori ixtea, garbi uzteko non den perpausaren beste muga.

Horretarako, zenbaitetan, puntuazio-marka bat ezar dezakegu (koma bat, demagun) bai erdarazkoan eta bai euskarazkoan. Berrero ere, ordea, alderantzizko kokalekuan ezarriko dugu zeinua: euskaraz, perpausaren hasierako muga adieraziz; erdaraz, berriz, amaierako muga adieraziz.

Esan bezala: gauza bera, baina hizkuntza bakoitzaren egiturara egokitua. Erdararen erreferentzia hartzen duenak, bada, kontuan har bitza halako desberdintasun eta are alderantzizkotasunak.

Euskararen beraren esparrura mugaturik ere, bada beste ondorio bat atera beharrekoa, arestian hizpidera ekarri duguna: darabilgun joskera-egitura edo desegokia bada, puntuazioak ezingo du hura behar bezala itxuratu. Izatekotan, puntuazio-arazoak arrastoa emango digu sintaxi-arazoa detektatzeko. Positiboki ere ikus daiteke kontua: ongi puntuatzen jakinez gero, sintaxi-aukera zabalagoak eta egokiagoak izango ditugu, testuaren argitasunaren eta irakurgarritasunaren mesedetan.

Gure honetan, arrazoi xehe guztiak banan-banan azaldu gabe, euskarazko testuen puntuazio-eredu bat azalduko dugu. Esan bezala, aipatuko ditugun hautazko erabilerez gainera, egokia izan daiteke, inoiz, estilo-lizentziaren bat hartzea, eredu horretatik desbideratuz; baina, horretarako ere, erreferentziazko ereduak eman beharko dio zentzua bestelako erabilera horri, batere zentzurik izango badu.

Orain artekoa laburturik:

Sintaxi zein *joskera* hitzen etimologiak garbi uzten duen moduan, atalez osatua da gure hitz-jarduna. Jardunaren osagai diren atal horiek nola banaturik eta antolaturik dauden markatzeko, doinueraren gorabeherez baliatzen da mintzoa. Idatzian, puntuazioak du eginkizun hori. Puntuazio-markak oso gutxi dira, eta, beraz, ezin dituzte adierazi ahozkoaren ñabardura guztiak. Hala ere (edo horrexegatik), adieraz dezaketen hori ongi adieraz dezaten ahalegintzea da testugilearen eginkizun nagusietariko bat.

Egituraz egitura azalduko dugu zer modu eta aukera eskaintzen dizkigun puntuazioak jarduna idatzian ongi seinaleztatzeko.

1. 2. Puntuazio-markak eta haien izenak

[.] puntua

[,] koma

[;] puntu eta koma

[:] bi puntuak

[...] etenpuntuak

[?] galdera-marka

[!] harridura-marka

[()] parentesiak (ireki/itxi)

[– –] marra pareta¹

[–] marra bakarra

[« »]² komatxoak (ireki/itxi)

Puntuazio-markek lotura handia dute, batetik, ortografiarekin, eta, bestetik, tipografiarekin.

Beste alde batetik, atarikoan azaldu dugun moduan, puntuazioaren erabilera bakoitza doinu-gorabehera jakin batekin loturik dago. Laburtasunaren izenean, ez dugu kontu hori berariaz aipatuko atal honetan, baina irakurleak ondo egingo du adibide bakoitzaren irakurketa akustikoari ere erreparaturik.

1. 3. Hurrengo ataletan zer

Gida honen helburu nagusia ez da xehetasun tipografikoetan sartzea, puntuazioaren erabilera nagusiak azaltzea baizik. Horregatik, testuaren antolaera arruntean eraginik handiena duten erabilera eta zeinuetan jarriko dugu arreta ia guztia:

- puntua
- puntu eta koma
- bi puntuak
- koma (eta juntagailua)
- tarteki-markak (parentesi, marra nahiz koma *pareak*)

¹Hitz-elkarteetako nahiz lerro-etenetako marratxoak [-] ez dagokio puntuazioari, orto(tipo)grafiari baizik. Nahaste handi samarra dabil zenbait testutan marra moten artean, eta zaintzekoa da marratxoaren eta marraren arteko alde hori. Teklatuak ez daude behar bezala egokituta, eta horrek ere ez du laguntzen, norberak egin behar baitu *brikolaje* koxkorra.

²Komatxo latinoak lehenesten ditugu, baina bada beste grafirik ere: [“]/[”] (ikus *Ortotipografia*, EIMA, 23.-25. or.). Komatxoaren kontuan ere, teklatuak egokitzea komeni, aldiro ikurren bila ibili behar ez izateko.

Oinarrizko puntuazio-zeinuak labur aurkeztu ondoren, xeheago eta sakonago azalduko dugu haien erabilera:

- puntuazioa: jarraibide praktiko batzuk (2. kap.)
- puntuazioa: nozio jakingarri batzuk (3. kap.)
- esaldien arteko puntuazioa: komatik gorakoen esparrua (4. kap.)
- esaldi barneko puntuazioa: koma soilaren esparrua (5. kap.)
- tartekien izaera eta puntuazioa (6. kap.)

Jakina denez, aipatutakoez gainera, ahozkoan darabilgun doinu-gorabeherari erreparatzea dugu aukerako beste bide bat, intuitiboagoa, azalpen sintaktiko eta semantikoekin batera balia daitekeena egoki puntuatzeko.

Edonola ere, garbi gera bedi, gure helburua ez da teoria sakonetan murgiltzea, baizik eta tresna lagungarri bat eskaintzea, testuak hobetzeko bidean, puntuazioa zorroztu nahian dabilenari.

1.4. Gida honetatik kanpo geratzen direnak

Azaltzen ari garen guztia, bestalde, paragrafoka antolaturiko testu arruntei dagokie, eta horretaz arduratuko gara hemen bereziki. Bada, hala ere, besterik, eta aipamentxo bat bederen egin beharra daukagu.

Paratestu direlakoei (hots, paragrafo arruntez besteko testu zatiei) tipografia-arau espezifikoko batzuk dagozkie, bereziak baitira alderdi askotatik: izenburuak, goiburuak, epigrafeak, zerrenda-zutabeak, irudi-oinak, bibliografiak...

Literaturan, sarritan gertatzen dira arau estandarrekiko desbideraketak, testuaren beste mailetan bezala puntuazioarenean

ere, kasuan kasuko adierazkortasun berezia xede³. Estilistikari dagokio halakoen azterketa: **lizentzia estilistikoak** dira. Hemen, zeharka baino ez ditugu aipatuko.

Poemetan, nola edo halako **metrikak** agindu ohi du testuaren antolaeran. Paragrafoei eta esaldiei, ahapaldiak eta bertso-lerroak gainezartzen zaizkie unitate nagusi gisa. Hor ere, beraz, ez dira beti guztiz aplikagarri izaten prosa arrunterako arauak. Bistan da, neurtitz izate horri dagozkion arau berezietz gainera, lizentzia estilistikoak ere ugariak dira poesian, literatura guztian bezala, edo areago genero horretan.

Aipatu gabe geratuko zaigu, noski, halako beste erabileraren bat, baina garbi utzi nahi da, behinik behin, testu orokorren bihotza den paragrafo estandarren puntuazioa dela gure ardura nagusia gida honetan.

³Idazleak ohartuki egiten dituen aukerez ari gara, jakina.

2. Puntuazioa: jarraibide praktiko batzuk

2. 1. Puntua

Esaldi bat hurrengotik bereizteko marka da puntua (ikus 4.1.).

- (1) Lehenengo, irakurri testua. Gero, azpimarratu izenondoak.
- (2) Hasierako urteak gogorak izan ziren. Gaztela gerra zibil batean ari zen borrokan.

2. 2. Koma

Koma da esaldiaren barneko puntuazio nagusia.

Hiru kasu bereiziko dira hemen:

- Komarik gabe idaztekoak
- Komaz idaztekoak
- Komaz zein komarik gabe idaztekoak

Funtsezkoa da azken kasu hori: idazleak badu bere sena, badaki zer esan nahi duen. Koma-kontuak lagungarri izan behar du beti, ez bortxazko araubide. Esaldien taxuak, testuinguru gramatikal eta semantikoak eta idazle bakoitzaren joerak eta jokaerak alde batera edo bestera ekar dezake puntuazioa. Helburua, bistan da, irakurketa ahalik eta argien eta erosoan egitea da. Hori lortzen laguntzeko baliabidea da puntuazioa.

2. 2. 1. Komarik gabe idaztekoak

a. Esaldiaren bi osagai elkartzen direnean.

a.1 Komarik gabe idazten dira «*a eta b*» modukoak: izenak, adjektiboak, adberbioak, aditzak (eta haien multzoak) *eta*

juntagailu soilaz juntatzen dira. a edo b horiek (edo biak) izen-sintagma garatuxeagoak direnean ere hala egiten da:

- (3) azidoak eta baseak
- (4) masa eta bolumena
- (5) agertu eta desagertu
- (6) ikasi eta irakatsi
- (7) sortu eta hazi
- (8) ekonomiaren gorakada eta zabalkundea
- (9) artisautza eta merkataritza
- (10) Pitagorasen teorema eta urrezko zenbakia
- (11) erregeei eta printzeei buruzko elezaharrak
- (12) interes sinplea eta interes konposatua

a.2 Komarik gabe idazten dira perpausez osaturiko esaldi atalak ere, jokatugabeak zein jokatuak:

- (13) ikasten eta ekiten ikasi
- (14) erregulartasunak bilatzea eta orokortzea
- (15) testu matematikoak irakurtzea eta ulertzea
- (16) erabakiak hartzeko eta harremanak eraikitzeko trebetasunak
- (17) Haurrak eta gazteak etorri ziren pilotan ikastera eta jokatzera.
- (18) Hala da legeak arautzen duelako eta horretarako baliabideak jartzen direlako.

a.3 Komarik gabe idazten dira esapide finko edo ihartuak, bi aditz juntatzen dituztenak barne:

- (19) jan eta lo
- (20) ikusi eta ikasi
- (21) ekin eta jarrai
- (22) ibili eta ibili

a.4 Komarik gabe idatzi ohi dira aginterazko esaldi juntatu sinpleak (ikasmaterialetan sarri erabiliak), finkoak edo ihartuak ez direnean ere⁴:

(23) Pentsatu eta idatzi.

(24) Irakurri eta asmatu.

(25) Aztertu eta bete hutsuneak.

(26) Asmatu adibideak eta txertatu testuan.

(27) Margotu tenperaturak eta idatzi tenperaturaren balioak.

a.5 Komarik gabe idazten dira, «*a eta b*» kasuan bezala, *ala, nahiz, zein, baina, edo...* juntagailuez lotutako osagaiak:

(28) Adierazi gezurra ala egia den.

(29) Zer egingo zenuke oparia gogorra ala biguna, handia ala txikia den jakiteko?

(30) disoluzioan nahiz nahastean

(31) lauak nahiz makurrak

(32) gorria zein urdina

(33) Baserrietan zein abeltegietan hazten dira abere horiek.

(34) txikia baina gogorra

(35) Matematika zaila baina atsegina da.

(36) artikuluekin edo artikulurik gabe

(37) pipeta edo bureta⁵

⁴Esaldien artean jauzi bat (kronologikoa nahiz bestelakoa) markatu nahi bada, egokia da koma jartzea: *Hona hemen 12 esaldi: irakurri, eta sailkatu.*

⁵Halakoetan koma (edo komatik gorakoa) erabiltzen bada juntagailuaren aurretik, ez dugu juntadura arrunta, eta azken osagaia *aparte gehiturikotzat* jotzen da: *Halakoak dira erreakzio organikoak, eta ez-organiko batzuk (ere bai).*

b. Esaldiaren hiru osagai edo gehiago elkartzen direnean.

b.1 Hiru osagai edo gehiagoko «*a, b... eta n*» modukoetan, koma ezartzen da osagaien artean, azkenekoaren aurrean izan ezik, hor baitoa *eta* juntagailua⁶:

- (38) juduak, musulmanak eta kristauak
- (39) nahasteak, disoluzioak eta substantzia puruak
- (40) izarrak, galaxiak, nebulosak eta zulo beltzak
- (41) normandoen, musulmanen eta estepako herrien erasoak
- (42) irakurri, kalkulatu eta erantzun.
- (43) energia elektrikoa ekoiztea, banatzea eta erabiltzea.
- (44) Entzutera, ikustera eta gozatzera joango naiz saioetara.

b.2 Gainerako juntagailuekin ere berdin jokatzeko da:

- (45) solidoak, likidoak edo gasak
- (46) moluskuak, ekinodermatuenak edo krustazeoenak
- (47) Badakit esaten angelu bat zorrotza, kamutsa ala laua den.
- (48) Baliabide teknikoak, ekonomikoak ala politikoak erabiliko diren.
- (49) Proiekzioa zeren gainean: X-ren, Y-ren ala Z-ren gainean?

c. Galdegaiaren eta aditzaren artean ez da komarik idazten (ikus 3.3.):

- (50) Zibilizazio praktikoa izan zen Erroma.
- (51) Oso ingurune kutsatuak dira etxeak eta bulegoak.
- (52) Material supereroaleak dira egungo ikerketen helburu.
- (53) Hirietarako joera nagusitu zen XIX. mendean.

⁶Zerrenda konplexuei buruz, ikus 5.4.

- d. Komaz bereizitako esaldi atal baten barruan ez da komarik idazten⁷:
- (54) **Nire ustez gaizki jokatu duen arren**, ez zait iruditzen zigorrik jarri behar zaionik.
 - (55) *Nire ustez, gaizki jokatu duen arren, ez zait iruditzen zigorrik jarri behar zaionik.
 - (56) **Prisma batzuetan aurpegi guztiak paralelogramoak direnez**, haietako edozein izan daiteke oinarria.
- e. Subjektuaren eta predikatuaren artean tartekirik ez badago, ez da komarik idazten⁸:
- (57) Metalek elektroia galtzeko joera dute.
 - (58) Datuak tarteka bildu behar dira.
 - (59) Hirugarren karlistaldia 1872ko apirilean hasi zen.
 - (60) Pozoiduraren sintomak perretxikoak jan eta sei ordura izaten dira.
 - (61) Diktadurak bertan behera utzi zituen berme konstituzionalak
 - (62) Proporzionaltasun zuzena ehuneko bidez adierazi ohi da.
- f. Mezuen eta gutunen hasierako agurren amaieran ez da egokia koma idaztea bi puntuen ordeztu:
- (63) Lankide maiteok:
 - (64) Zuzendari agurgarria:
 - (65) Jaun txit argia:

2. 2. 2. *Komaz idaztekoak*

- a. Koma idazten da esaldiaren hasierako zenbait elementuren ondoren.

⁷Komarik ageri bada, *b* atalekoen motakoa izango da, juntagailuaren ordezkua, edo, bestela, tartekiei dagokien koma pareta.

⁸Ikus 5.1.1.

Lokailuen ondoren: *beraz, hortaz, dena dela, nolanahi ere, izan ere, hala eta guztiz, besteak beste, bestalde*⁹...

- (66) **Beraz**, biharko egina egon beharko du.
- (67) **Hortaz**, DBHko Curriculuma etapa horretako helburuek osatuko dute.
- (68) **Dena dela**, etxean egon baino nahiago dut Baionan ibili.
- (69) **Nolanahi ere**, ez dizut onartuko.
- (70) **Izan ere**, bertsoetan badira ideia batzuk.
- (71) **Hala eta guztiz**, muga-zergak ez zituzten berriro kostara eraman.
- (72) **Besteak beste**, esandakoarekin bat gatoz.
- (73) **Bestalde**, aipatutako irizpideak ere izan ditugu kontuan.
- (74) **Horrela**, ikasleek lanean inplikatzeko aukera izango dute.

Komaz lotzen dira esaldiaren hasierako bestelako osagai asko ere (mintzagai badira, eta ez galdegai; ikus 3.3.):

- (75) **Zientzietako ikasgaiei dagokienez**, ezin esan hain ondo dabilenik.
- (76) **Definizio horien arabera**, merkurioa elementua da.
- (77) **Esperientzia horri esker**, burdina herdoildu egin zen.
- (78) **Esan duzun guztia egia bada**, lasai egon zaitezke.
- (79) **Ikusi dugunez**, argiaren hedapen-abiadura inguruneak baldintzatuko du.
- (80) **Zaila den arren**, lortzen saiatuko gara.

b. Koma artean idatzi ohi dira esaldiaren osagai arrunt diren tartekiak:

- (81) Gizakiak, **bipedoa izanik**, gehienez ere 40 km/h-ko abiadura har dezake.
- (82) Uretan, **presio jakin baterako**, gasen disolbagarritasuna tenperatura igotzean txikiagotzen da.

⁹Hala ere, ikus 2.2.3.a.

Tarteki batzuetan, parentesiak edo marra pareta erabiltzen dira; hala jokatzeko denean, koma parearekin baino nabarmenago adierazten da tartekia:

- (83) CO₂ isurketen per capita indizea (**zenbat tona biztanleko eta urteko**) Europako txikienetakoa da Espainian.
- (84) Gainerako gaiak –**nortasunaren garapenak, giza harremanek, maitasunak eta gatazken maneioak**– tratamendu murriztagoa dute, aurreko bi gai horien aplikazioa dira eta.

Lokailuak (*berriz, ordea, izan ere, beraz, aldiz, hala ere...*) tarteki dira, eta koma artean doaz:

- (85) Mugimendu nazionalistek, **berriz**, independente izateko eskubidea aldarrikatzen dute.
- (86) Iritzi-testu bat da, **beraz**, eta egileak trantsizio politikoaren azterketa egiten du.
- (87) Helburua lortzeko urratsak, **aldiz**, zailagoak izan ziren.

Alde batean goragoko puntuazioa badator, hark irensten du kometariko bat (ikus *a.* atala, esaldi-hasierakoei buruz):

- (88) Itsasoan igeri dabiltzan batzuk ez dira arrainak; **besteak beste**, baleak eta izurdeak.
- (89) Txikiegia da, **izan ere**; horregatik ez dut erosi.
- (90) Ehuneko hogeik erantzun du; bostetik batek, **alegia**.
- (91) **Beraz**, honela idatzi behar da: -7 (eta ez, *-7).

Deikiak ere tarteki dira, eta komaz bereizi behar dira:

- (92) Kaixo, **lagunok**:
- (93) Egun on, **Iñaki**:
- (94) Zorionak, **Sorkunde!**
- (95) Zatoz, **Edurne**, lehenbailehen!
- (96) Ondo al zaude, **polit hori?**
- (97) Etorri hona, **neska-mutilok!**

2. 2. 3. *Komaz zein komarik gabe idaztekoak*

a. Komaz zein komarik gabe idatz daitezke honelako esaldien hasierako osagaiak (zirkunstantzialak-eta)¹⁰:

- (98) **Orain(,)** ikerketa-lana egingo duzu.
- (99) **Gaur egun(,)** Ekialde Hurbila da ekoizle nagusia.
- (100) **Azken hamarkadetan(,)** asko handitu da kontsumoa.
- (101) **XX. mendean(,)** oso azkar hazi da munduko biztanleria.
- (102) **Geografian(,)** askotan erabiltzen dira mapak.
- (103) **Hasierako bidaietan(,)** urrea aurkitu zuten.

Kasu batzuetan, koma jarri edo ez jarri, esanahia aldatzen da (bereziki, segidan aditza¹¹ edo mendeko esaldia baldin badator):

- (104) *Auziak ebazteko batzordea* eratu dute¹².
- (105) *Auziak ebazteko, batzordea* eratu dute.
- (106) *Horretarako erabiltzen duten metodoa* ezagutu behar da.
- (107) *Horretarako, erabiltzen duten metodoa* ezagutu behar da.
- (108) *Ekitaldiaren amaieran isilik egoteko* esan behar litzaioke.
- (109) *Ekitaldiaren amaieran, isilik egoteko* esan behar litzaioke.

Delako osagaia mendeko perpaus batean badoa, ez da komarik idazten:

- (110) **Hasierako bidaietan(,)** urrea aurkitu zuten.

¹⁰ Batzuetan, koma beharrezkoa izango da nahasbidea saihesteko.

Mintzagaia kontrastezkoa bada, areagotu egiten da koma idazteko joera: *Hor, ederki zaudete; bemen, berriz, sekulako arazoak ditugu.*

Esaldia luzea izateak berak ere areagotu egiten du mintzagaiaren komaren beharra: *Maleta bat edo fardel astun bat esku batean hartzen dugunean, gorputzaren pisua baino bost edo sei aldiz indar handiagoa jasan behar izaten du beste aldeko aldaka-bezurak.*

¹¹Halakoetan komarik gabekoa galdegaitzat interpretatzen baita eta komaduna mintzagaizat: *Gaur etorri da / Gaur, etorri da.*

¹²Ikus 5.2.

- (111) *Hasierako bidaietan urrea aurkitu zutelako* jarraitu zuten hara joaten.
- (112) Gaur egun(,) Ekialde Hurbila da ekoizle nagusia.
- (113) Garbi dago *gaur egun Ekialde Hurbila dela ekoizle nagusia*.
- (114) Azken hamarkadetan(,) asko handitu da kontsumoa.
- (115) *Azken hamarkadetan kontsumoa asko handitu denez*, lehia handia dabil bezero berrietara iristeko.

b. Komaz zein komarrik gabe idatz daitezke, orobat, honelakoak¹³:

- (116) Osatu esaldiak(,) aurreko ariketako hitzak bakarrik erabilia.
- (117) Sor itzazu adberbio batzuk(,) honako hitz hauei atzizkiak erantsiz.

c. Elipsi edo aditz-isiltze batzuetan, aukerakoa da koma idaztea edo ez (ikus 4.6. *Aditz-isiltzea*):

- (118) Mendekotasunezko elkarteetan, lehen osagaia mugatzailea da(,) eta bigarrena(,) mugakizuna.

d. Bi esaldi *eta* juntagailuaz elkartzean, aditza juntagailuaren ondoan badator –ezker zein eskuin–, komarrik gabe idatz daiteke¹⁴:

- (119) Hiztegitantza alor berezia **da eta** tipografia-arau bereziak ditu¹⁵.
- (120) Azter ezazu poliki **eta erantzun iezaiezu** galderei.
- (121) Sakonerarik gorena Filipinetako fosan **dago eta** 11.516 m ditu.
- (122) Zati bat urak **hartzten du eta** gainerako zatiak ura zeharkatzen du.

¹³Ikus Eranskinak: *Esaldiaren informazio-antolaera*.

¹⁴Esaldiak juntaduraz elkartzean, egitura garbi geratzen bada (hots, lehen esaldia non amaitzen den argi badago), aukerakoa da juntagailuaren aurrean koma jartzea edo ez jartzea. Komarrik ez idaztea, joerak joera, maizago gertatuko da esaldi bakunak elkar-tzen direnean.

¹⁵Gauza bera gertatzen da *edo, ala...* juntagailuekin ere: *Larri dabil edo beldurra sentitzen du*.

- (123) Horiek guztiak mundu osoko arazo **dira eta** gizateria osoari eragiten diote.
- (124) Begiratu zeure buruari ontziaren alde ahurretik **eta azaldu** nola ikusten duzun zeure irudia.

Esaldiak luzatzeak, konplexuago bihurtzeak eta barnean komak edo juntagailuak eramateak areagotu egiten du, oro har, juntagailuaren aurreko komaren beharra:

- (125) Masa-zenbakia A letraz adierazten da, **eta** erlazio jakina betetzen du¹⁶.
- (126) Errimak eskatzen dituen moldeak errespetatu egin behar dira, **eta** gutxienez ahapaldi osoan eutsi behar zaio irizpide-batasunari.
- (127) Bertsoak, olerkiak edota abestien letrak lerro batean ere idatz daitezke, **eta** barra edo zehar-marra erabili behar da bertso-lerroak bereizteko.

Aditza juntagailuaren ondoan ez badator, komeni da koma jartzea, egitura garbiago uzteko eta nahasbideak saihesteko:

- (128) Han agertu ziren **bertsolariak, eta entzuleak** txaloka hasi ziren.
- (129) Eskolak, alde batetik, jarraitu egiten du familian hasitako **hazkunde-prozesua, eta** familiarekin partekatzen du haurraren hazkunde intelektual eta afektiboarekiko kezka.

Juntatzen diren esaldien artean nolabaiteko jauzia baldin badago esanahiaren aldetik (kronologikoa nahiz logikoa), areagotu egiten da koma idazteko joera:

- (130) Ikusiko du, **eta** erabakiko du.
- (131) Eskatutako guztia egin dugu, **eta** ez dira konforme geratu.
- (132) Izugarritzko hondamendi ulertezina zetorkien, **eta** ezin inork jakin nola amaituko zen.

¹⁶Gauza bera gertatzen da *edo, ala...* juntagailuekin ere: *Izan al zen Teogniz ize-neko poetarik, edo bilduma arkaiko bat besterik ez da izen horrekin gorde dena?*

e. Juntagailuak berak marka dezake jauzi semantikoa –*bainak*, esate baterako–, eta horregatik jotzen da hor ere koma idaztera:

(133) Oso erraza da lagunak eduki nahi izatea, **baina** adiskidetasuna poliki-poliki sortzen den fruitua da.

(134) Letra larriz hasita idatz daiteke, **baina** ez da nahitaezkoa.

(135) Behin eta berriz eskatu genion, **baina** ez zuen kasu egin.

(136) Eta Liga gobernuan sartu zen, **baina** ez zuten lortu erreforma ezartzea.

(137) Gramatikaren aldetik zuzena da, **baina** beste zerbait adierazi nahi du.

f. Hiru esaldi juntatzen direnean, honela joka daiteke, esaldien konplexutasunaren arabera:

Edo esaldi-osagaien arteko puntuazio bera erabiliz: a, b eta c.

(138) Irakur ezazu testu hau, koka itzazu ubideak mapan eta egin ezazu laburpen bat uraren arazoaren gaineko ideiekin.

Edo maila bat igoz puntuazioa, hots, esaldi-juntadurarako puntuazio berezia erabiliz: A; B, eta C.

(139) Mapa honek azalpenak irudiekin osatzeko aukera emango digu; Ebanjelioko testuak gertatutako tokietan kokatuko ditugu, eta Jesusen lurraldearen egitura geografikoari buruzko informazio gehiago eskuratuko dugu.

g. Bigarren esaldian *eta* juntagailuaren segidan tartekia datorrenean, dabiltzan puntuazio-jokaeren artean, lehenengo eta behin, tartekiaren koma pareari eustea gomendatzen dugu:

- (140) Zenbaki atomikoa Z letraz adierazten da eta, **atomoa neutroa denean**, elektroi-kopuruarekin bat dator¹⁷.
- (141) Erakundeen izen generikoak beren izenaren parte dira *eta*, **hala direnez**, larriz idazten dira haiek ere.
- (142) Tokatu zaizun postal zatia ondo behatu eta, **zure txanda iristen denean**, deskribatu.
- (143) Egungo gizartean, informazioa funtsezkoa da eta, **horregatik**, telekomunikazioen garapenak lan egiteko modua aldatu digu.

Kontuan hartu, hala ere, beste zerbait interpreta daitekeela halako testuinguruetan –alegia, *eta* hori aurreko aditzari erantsia doala: *da(-)eta*, *daitezke(-)eta*... uler dezakegu—. Koma idaztea balia daiteke interpretazio hori saihesteko:

- (144) Orduan, sailkapen sistematikoen izenetara jo ohi da, eta, denborarekin, izen taxonomikoak bulgarizatu egiten dira.
- (145) Zenbait kasutan, azpiindizeak nazioartean onarturiko laburdurak izan daitezke, eta, horrelakoetan, errespetatu egiten da notazio hori.

2. 3. Puntu eta koma

Esaldiak alborakuntzaz elkartzeko erabiltzen da puntu eta koma (ikus 4.2.):

- (146) Bigarren etapa 1925eko abenduaren eta 1927. urtearen artean izan zen; fase hartan lortu zuen gailurra diktadoreak.
- (147) Harreman honek berezko ezaugarriak ditu; ez ditugu aipatuko guztiak.

Puntu eta komak eta puntuak eginkizun bera dute: esaldien arteko markak dira. Alde bakarra: puntuak eten handiagoa markatzea. Puntua erabili beharrean puntu eta koma erabiliz, beraz, elkaturiko esaldien arteko lotura handiagoa dela adierazten dugu.

¹⁷ Berdin jokutzen da esaldiak *edo* juntagailuaz elkartzen direnean: *Formula matematikoa osorik eman behar da edo, bestela, gertaera fisikoa hitzez azaldu behar da.*

2. 4. Bi puntuak

Bi puntuak eginkizun bat baino gehiago dute. Batetik, kataforak¹⁸ adierazteko erabiltzen dira:

(148) Hiru lagun etorri ziren: Idoia, Jone eta Miren.

Bestetik, esaldi alboratu biren artean kausa-ondorio edo ondorio-kausua erlazioa dagoela adierazten dute (horrek bereizten ditu bi puntuak, erabilera horretan, puntu eta komatik):

(149) Euria ari zuen: etxean geratu ginen.

(150) Etxean geratu ginen: euria ari zuen.

Azkenik, mezuen abiaburuetan eta izenburuetako zehaztapenetan funtzio berezia betetzen dute bi puntuak (ikus 4.3.):

(151) Lankide maiteok:

(152) Lehen partea: Bristolera noa.

2. 5. Etenpuntuak

Amaitu gabeko sekuentzia bat adierazteko erabiltzen dira etenpuntuak (ikus 4.8.1.):

(153) Eleberri horrek denetik biltzen du: zalantza, lotsa, intriga, beldurra...

2. 6. Galdera-marka eta harridura-marka

Galdera edo harridura adierazteko, galdera-marka edo harridura-marka erabiltzen da, hurrenez hurren (ikus 4.8.2.):

(154) Zer informazio behar dugu problema ebazteko?

(155) Goazen aurrera!

¹⁸Katafora: testuan gero azalduko den elementu bati erreferentzia laburtua egitea. Adibidez, *Baldintza* [hau] jarri du: [garaiz etortzea].

2. 7. Parentesiak eta marra pareta

Esaldiaren hari nagusitik aparte doan zerbait tartekatzeko erabiltzen dira parentesiak edo marra pareta (ikus 6.1.):

- (156) Zenbait idazle (besteak beste, Flaubert, Joyce eta Beckett) iritzi horretakoak ziren.
- (157) Formalki ere –hots, ortotipografiari dagokionez–, bada aldea marren eta parentesien artean.

2. 8. Marra bakarra

Elkarrizketetan erabiltzen da marra bakarra, solaskide bakoitzaren txandari dagokion paragrafoaren hasieran (ikus 4.8.4.):

- (158) –Zer duzu?
–Ezer ez.

2. 9. Komatxoak

Aipuak edo barne-hizketa markatzeko erabiltzen dira komatxoak (ikus 4.8.5.):

- (159) Esan zigun: «Azido sulfurikoa erabiltzen baduzue, kontuz ibil zaitezte».
- (160) «Ez zidak adarrak jo», egin zuen bere artean.

3. Puntuazio-kontuak lantzeko zenbait kontzeptu

3. 1. Paragrafoa

Testua **paragrafotan** banatzen da normalean. Paragrafo bakoitza letra larriz hasten da, eta **puntua** darama amaieran.

Hurrengo paragrafoa lerro-jauzi (bakun edo handiago) baten ondoren dator (eta ezker koska batez markatu ohi da batzuetan)¹⁹.

3. 2. Esaldia

Esanahi osoa duen testu-unitatea da **esaldia**²⁰. Hiru eratakoa izan daiteke osakeraz:

Perpau bakuna, aditz bakar batez osatua:

(161) Etxean geldituko gara.

(162) Euria ari du.

Perpau konposatua, perpau nagusi batez eta mendeko perpau bat(zu)ez osatua:

(163) Euria ari duenez, etxean geldituko gara.

(164) Euria ari badu ere, norabait joango gara, etxean ez geratzearren.

Aditzik gabea:

(165) Arratsalde on.

(166) Kontuz horrekin(!).

(167) Ados.

(168) Zorionak, Nekane.

(169) Ederra ateraldia!

3. 3. Galdegaia eta mintzagaia

Esaldiaren barruan enfasi berezia hartzen duen osagaia da **galdegaia** (*fokua*). Aditz nagusiaren aurrean kokatu ohi da euskara

¹⁹Paragrafoak egoki banatzea, zer esanik ez, funtsezkoa da testu batean, baina gure puntuazio-gida honek ez dauka helderik testugintzaren muiin horretaraino.

²⁰Perpauaz eta esaldiaz, ikus EGLU III.

batu estandarrean, salbuespenak salbuespen²¹, eta aditz horrekin batera ahoskatu ohi da, bien artean inolako etenik egin gabe:

(170) Ekitaldia **gaur** izango da, esandako orduan.

(171) Bihar(,) **beranduago** izango da ekitaldia.

Esaldiaren **mintzagaia** (*topikoa*) hiztunak abiapuntutzat ematen duen informazio edo hizpidea da. Testuinguruan hiztunak ezaguntzat jotzen duen erreferentziaren bat izaten da mintzagaia, eta esaldiaren aurrean eman ohi da:

(172) **Datorren astean**(,) ez da izango ekitaldirik.

(173) **Hori jakiteko**, ortoedroaren diagonalak kalkula liteke.

Bestela ere esan ohi zaie kontzeptu horiei, *rema* eta *tema*, nahiz eta baliokidetzak ez den erabatekoa: galdegaia eta mintzagaia hitz-hurrenkerari dagozkio, eta rema eta tema, berriz, informazioaren antolaerari:

(174) **Euria ari duenez** [tema + topiko], etxean geldituko gara **gaur** [tema].

(175) **Gaur** [tema + topiko], **euria ari duenez** [tema + topiko], etxean geldituko gara **arratsaldean** [tema].

3. 4. Tartekiak

Tartekia ez da definizio zehatz-zehatzeko kontzeptua. Esaldian, *aparte*-edo ematen den sintagma bat izaten da, osaez eta luzeraz era askotarikoa: hitz soila, hitz multzoa zein perpausa²².

Leku batean baino gehiagotan koka daiteke tartekia esaldian. Etxeko edo bulegoko *post-it* ohar-orririxoen tankera du:

²¹Salbuespenotariko batzuk oso zabalak dira. Aipagarriena, perpaus osagarri jokatuena kasua, galdegai direlarik ere aditzaren atzean baitoaz eskuarki. Ez da hau lekua, hala ere, luze eztabaidatzeko kontu hori: puntuazioaz ari gara hemen, eta sintaxi-eredu estandar batean.

²²Ikus 6. atala.

- (176) Gaur(,) etxean geratuko gara.
 (177) **Beraz**, gaur(,) etxean geratuko gara.
 (178) Gaur, **beraz**, etxean geratuko gara.
 (179) Gaur(,) etxean geratuko gara, **beraz**.

Antzeko jokoa emango lukete, «beraz» lokailuaren lekuan, «izan ere», «ongi baderitzozue», «hobeto pentsatuta», «ez izan dudarik» eta beste hainbat tartetik.

Azpimarratzekoa da tartekitzat jotzen dugun hori ez doala beti esaldiaren osagaien *tarlean*: esaldiaren hasieran zein amaieran ere joan liteke. *Aparte* erantsia da; hori du ezaugarri erabakigarria.

Tarteki mota berezi bat dira **lokailuak**, laburrak eta espezializatuak: *beraz*, *ordea*, *beharbada*, *alegia*, *noski*, *oro har...* Era askotako esanahiak eta funtzioak dituzte²³.

Deikia ere tarteki mota berezi bat da, solaskideari nolabaiteko dei-hitzez zuzentzen zaiona:

- (180) Jakingo duzu, **Jone / (ene) alaba (maite) / polit hori**, ez zauzkadala saltzeko.
 (181) Etorri hona, **neska-mutilok**.

²³Erabaki dugu *lokailu* etiketa horri eustea puntuazioari dagozkion kontuetan, nahiz eta, ikusiko denez, izen horrek ez zehazki bildu halako tarteki espezializatu askoren eginkizuna. *Lokailu* diogunean, hala, *lokailu eta antzeko* uler bedi. Hor sartuko ditugu, bada, gramatikak lege osoz *lokailu* deritzenekin batera (ikus EGLU III), modalizatzailerak (*beharbada*, *noski*), antolatzaileak (*alegia*, *bestalde*) eta beste eragile eta partikula batzuk. Hots, esaldien gainetik *testua* nola edo hala semantikoki josi edo *lotzeko* erabiltzen den edozein tarteki espezializaturik esango diogu hemen, hedaduraz, *lokailu*. Izan ere, izaera bertsoak dira guztiak puntuazioari dagokionez. Funtsean, semantikoki, tartekaturiko perpaus-proposizio baten balioa dute, beren laburrean, *lokailu*-tartekitxook.

Lokailuen artean sailkatu izan badira ere, sail berezi bat osatzen dute foku-adberbioek (ikus 6.6.1.), esaldiko osagai bati baitagozkio (beren fokutzat hartzen dutenari, hain zuzen), haren ondoan joan (komarik gabe) zein ez (tarteki-komaz): *bereziki* (*nagusiki*, *batez ere...*), *bederen* (*behintzat*, *behinik behin...*), *soilik* (*bakarririk*), *orobat* (*berebat*, *halaber*, *era berean*)... Sail horretakoak dira, baina beti fokuari komarik gabe lotuak, *ere* eta *are* partikulak.

Esaldiaren haria eten egiten dute tartekiek. Beste maila bateko informazioa txertatzen edo –hortik, noski, izena– *tartekatzen* dute: modala (*noski, beharbadā*), diskurtsiboa (*ordea, alegia*), alokutiboa (*aizu, kontuz*)...

Hurrengo adibide hauetan, lehen esaldian osagai arrunta dena tarteki arrunta da bigarrenean (edo, beste interpretazio eta intonazio batez, bigarren mintzagaia), eta tarteki nabarmenagoa (aparteagoa) hirugarrenean:

- (182) Halako jolasak ez daude ondo ikusiak **herri batzuetan**.
- (183) Halako jolasak, **herri batzuetan**, ez daude ondo ikusiak.
- (184) Halako jolasak –**herri batzuetan**– ez daude ondo ikusiak.

3. 5. Juntadura eta alborakuntza

Maila askotako osagaiak elkartu litezke juntaduraren bidez. Horretarako, juntagailuak erabiltzen dira:

- (185) ura **ala** ardoa
- (186) zaharrak **zein** gazteak
- (187) direnak **eta** ez direnak
- (188) nahi duzulako **edo** agindu dizutelako
- (189) nagusia denez **eta** aginpiderik ez duenez
- (190) Denok dakigunez, nagusia da, **baina** ez du aginpiderik.
- (191) liburuak, diskoak, jokoak **eta** jostailuak

Bestalde, zerrenda itxi gabeak adierazteko, badira zenbait aukera:

- (192) liburuak, diskoak, jokoak, jostailuak...
- (193) Lurrunean gas kondentsaezinak daude (airea, CO₂, etab.).
- (194) Ez da aski izango aurpegia, lepoa, enborra, besoak eta abar ezagutzea.

Aipatua dugu esaldiak puntu eta komaz edo bi puntuz elkartu daitezkeela. Horri **alborakuntza** esaten zaio:

- (195) Nagusia da; ez du, ordea, aginpiderik.
- (196) Lotsatuta dago; izan ere, ez dakit nola bururatu zitzaion hori egitea.
- (197) Euria ari du: etxean geldituko gara.
- (198) Hor joan da: bakarrik ibiltzea gustatzen zaio.

Asindeton esaten diogu juntadurarik gabeko zerrendari:

- (199) liburuak, diskoak, jokoak, jostailuak

Polisindeton esaten diogu zerrendan datozen elementu guztiak behin eta berriro juntagailuz lotzeari:

- (200) liburuak **eta** diskoak **eta** jokoak **eta** jostailuak

Figura horiek literaturan agertzen dira maizenik.

4. Esaldien artean erabiltzeko puntuazioa

4. 1. Segidako esaldiak puntuaz bereiztea

Paragrafoaren barruan, amaierako puntuaz gainera, beste puntu batzuk ere agertu ohi dira; esaldi batetik besterako etena markatzekoak bereziki. Puntuaren ondoren, letra larriz markatzen da hurrengo esaldiaren hasiera²⁴.

Hasierako letra larritik punturaino doan testu zatiari *puntuarte* esan dakioke. Puntuarte ez dator beti bat esaldi-banaketarekin.

Puntuak baditu beste erabilera batzuk, ortotipografiak arautuak: laburdurak markatzeko, *-garren* atzizkia ordezkatzeko eta abar.

Puntuazio hitza *puntu* hitzetik eratorria izateak berak adierazten du marka horren nagusitasuna. Denboran ere, puntua izan zen (edo haren aitzindariak: ikur esaldi-bereizleak) puntuazioaren historia luzean lehena.

Esaldiak bereiztea da puntuazioaren funtzio lehen eta nagusia. Honela bil dezakegu arau nagusi hori:

Puntua da esaldi bat hurrengotik bereizteko puntuazio-marka nagusia.

Doinuak behera egiten du nabarmen esaldiaren amaieran (*kadentzia* deritzo tonu-beheratze horri), eta horixe markatzen du puntuak: tonuak behera egitearekin esaldia amaitzen dela.

²⁴4. eta 5. kapituluetakako adibide batzuek *esaldien arteko* eta *esaldi barneko* bereizketa estuari ez diote bete-betean erantzuten. Bertako azalpenak hobeto ulertzen lagunduko dutelakoan erabili dira.

Puntuak, are gutxiago komak, ez du adierazten gelditu egin behar denik (are gutxiago, arnasa hartu behar denik). Hartu beharko da noski arnasa tarteka, baina ez puntua dugun aldiro.

Bestalde, esaldiek beren artean esanahi-lotura berezia dutenean (testugileak hala deritzonengan, alegia), bada beste aukerarik: a) puntu eta koma; b) bi puntu.

4. 2. Esaldiak puntu eta komaz elkartzea

Esaldiek esanahi-lotura estua baldin badute (nolabaiteko azpimultzoa osatzen badute), puntu eta komaz elkartu litezke:

- (201) Nekazariei mendien herri-erabilerarako eskubidea kendu zieten; legeek atzerriko kapitala erakarri zuten.
- (202) Bigarren etapa 1925eko abenduaren eta 1927. urtearen artean izan zen; fase hartan lortu zuen gailurra diktadoreak.
- (203) Hemen duzu; atzo etorri zen. Oso nekatuta omen dago.

Doinuz ere puntuaren berdina da puntu eta koma, beheranzkoa: kadentziak markatzen du esaldia amaitu dela. Nolabaiteko mailaketa dago esaldiak elkartzeko lau moduetan:

puntu eta koma

puntu eta jarraitu

puntu eta hurrengo paragrafora

puntu eta amaitu

Bestetarako ere erabiltzen da puntu eta koma. Bereziki, koma daramaten osagaiak beren artean lotzeko (ikus 5.4.).

- (204) liburuak, handi nahiz txiki; diskoak, binilozkoak zein digitalak; haurrentzako jokoak eta bestelako jostailuak

Puntu eta komak eta puntuak eginkizun bera dutenez (esaldiak bereiztea/elkartzea), idazlearen aukera da batera ala bestera jotzea.

Estilo-aukera. Estilo diogunean, hala ere, ez gara ari goi-mailako literaturaz bakarrik. Idazten duen orok etengabe egin beharreko aukera da hori.

Idazle askok ez du, ia, puntu eta komarik erabiltzen. Bere erreperitorioan bi baliabide dituenak, berriz, abantaila du. Bestearen estilo berean idatz dezake, nahi izanez gero. Komeni zaionean, aldiz, bi prozedurak konbina ditzake: puntuz bereizitako zatiak (atal nagusiak) eta haien barruko esaldi multzoak (azpiatalak).

Alborakuntzaz elkartzen diren esaldien artean, koma soila erabil daiteke puntu eta komaren ordean, horrek ez badu nahasbiderik eragiten.

Egitura paraleloa duten esaldiak elkartzen direnean baliatu ohi da gehienik aukera hori (eta, literaturan, efektu estilistikoak bilatzeko):

(205) Atomoa zen materiaren azken osagaia, atomoa zen zatitu ezin zitekeen zatia.

4. 3. Esaldiak bi puntuz elkartzea

Badago beste modu bat esaldiak elkartzeko: **bi puntu** erabiltzea. Kausa-ondorio erlazioa adierazteko balio du.

Ondorioaren aurretik edota atzetik idatz daiteke kausa hori. Atzetik emandako kausa horri *azalpen* ere esan dakiok. Zeinu hori (bi puntu), erabilera horretan, berezia da orain artekoen aldean. Berezko esanahia du, kausa-ondorio erlazioaren bestelako adierazpide esplizitu batzuen paretsukoa:

(206) Garestia da; beraz, ez dut erosiko.

(207) Garestia da: ez dut erosiko.

(208) Ez dut erosiko, garestia da eta.

(209) Ez dut erosiko: garestia da.

Puntu eta komaren eta bi puntuen arteko aldea, esanahiaren aldetik, zera da: bi puntuak erabiliz, esaldi bat bestearen azalpen edo arrazoitzat jotzen dela esplizituki. Esate baterako:

(210) Euria ari zuen: etxean geratu ginen [, beraz].

(211) Etxean geratu ginen: euria ari zuen [, izan ere].

Puntu eta komaz, berriz, puntuazioak ez du halakorik esplizitatzen (irakurleak egin dezake lotura logikoa, baina beste kontu bat da hori):

(212) Euria ari zuen; etxean geratu ginen.

(213) Etxean geratu ginen; euria ari zuen.

Eman ditugun adibideetan, gehienetan bezala, kausa-ondorio zein ondorio-kausua erlazioak lotzen ditu bi esaldiak, eta horixe markatzen dute bi puntuek. *Ondoriotasun*-erlazioa, hala ere, logikazkoa ez ezik, ia denborazko hutsa ere izan daiteke:

(214) Bazen mahai bat, paperez ia estalia: aurrera jarraitu genuen.

Edo pertzepziozkoa:

(215) Leihora hurbildu zen: haur batzuk jolasean ari ziren parkean.

Erabiltzaileari dagokio, kasu bakoitzean, bere ñabardurak nola adierazi erabakitzea.

Bi puntuek badituzte beste erabilera batzuk: kataforak, mezuen abiaburuak eta izenburuen azalpen edo zehaztapenak:

a) Kataforak:

(216) Beti eskura dugun lagun bat: liburua.

Katafora da, ziur asko, bi puntuen erabilerarik emankorrena, eta, beraz, testuetan ugariena²⁵:

²⁵Katafora ez da, ordea, beti bi puntuz adierazten. Esaldiak jarraitzen badu, tarteki izango da azalpen kataforikoa, eta koma artean eman daiteke (parentesi edo marra

(217) Hiru lagun etorri ziren: Idoia, Jone eta Miren.

b) Mezuen abiaburuak:

(218) Lankide maiteok:

Azken txostena zabaldu genuenetik...

c) Izenburuen zehaztapen edo argibide gehigarriak:

(219) Lehen partea: Bristolera noa.

Azkenik, ohar bat egin beharra dago bi puntuen errepikapenari buruz. Salbuespen bereziren batean izan ezik, bi puntuen ondorengoarekin amaitu egin behar da esaldia. Ez da izaten egoki, oro har, bi puntuak berriro errepikatzea segidan.

Baina gerta liteke errepikapenak zentzua izatea:

(220) Bi marken arteko aldea, esanahiaren aldetik, hauxe da: bi puntuak erabiliz, esaldi bat bestearen azalpen edo arrazoitzat jotzen da esplizituki: [adibideak]

Hala ere, errepikapena saihestu nahi izanez gero, bada hartarako biderik:

(221) Bi marken arteko aldea, esanahiaren aldetik, hauxe da: bi puntuak erabiliz, esaldi bat bestearen azalpen edo arrazoitzat jotzen da esplizituki. Hona adibide batzuk: [adibideak]

4. 4. Esaldiak juntaturaz elkartzea

Hemen ikusten ari garen juntadura mota ez da esaldiaren barneko osagaiei dagokiena, esaldi osoen arteko juntadurari dagokiona baizik.

artean ematea ere aukerakoa da, jakina): *Beti eskura dugun lagun bat, liburua, ez dugu behar bezala estimatzen.*

Esaldiak jarraitzen badu, desegokiak dira bi puntuak: **Hiru lagun etorri ziren: Idoia, Itziar eta Miren, oporrak hemen pasatzera. Honelakoren bat behar da: Hiru lagun etorri ziren –Idoia, Itziar eta Miren– oporrak hemen pasatzera.*

Esaldiaren barneko osagaien arteko juntaduran, juntagailu hutsa erabiltzen da, edo juntagailuaren ordezkoko koma hutsa, bi osagaitik gorakoetan.

Bi esaldi *eta* juntagailuaz elkartzen direnean, eta aditza juntagailuaren ondoan egokitzen bada, aukerakoa izaten da koma²⁶:

(222) Ekonomia arlo zabala da(,) **eta** sigla asko erabiltzen dira.

(223) Adituak urrunago doaz(,) **eta** merkataritza-akordioa eskatzen dute.

Juntatzen diren esaldiak konplexuagoak bilakatu ahala, areagotu egiten da juntagailuaren aurreko komaren beharra:

(224) Eskolak, alde batetik, jarraitu egiten du familian hasitako hazkunde-prozesua, **eta** familiarekin partekatzen du haurren hazkunde intelektual eta afektiboarekiko kezka.

4. 5. Hiru esaldi juntatzean zer puntuazio erabili

Hiru esaldi (edo gehiago) juntatzen direnean, honela joka daiteke, esaldion konplexutasunaren arabera:

Edo esaldi-osagaien arteko puntuazio bera erabiliz: a, b eta c.

(225) Irakur ezazu testu hau, koka itzazu ubideak mapan eta egin ezazu laburpen bat uraren arazoaren gaineko ideiekin.

Edo maila bat igoz puntuazioa: A; B, eta C.

(226) Mapa honek azalpenak irudiekin osatzeko aukera emango digu; Ebanjelioko testuak gertatutako tokietan kokatuko ditugu, eta Jesusen lurraldearen egitura geografikoari buruzko informazio gehiago eskuratuko dugu.

²⁶Ikus xehetasun gehiago 2.2.3.d. puntuan.

4. 6. Aditz-isiltzea

a. Aditz laguntzailea isiltzea

Oso maiz gertatzen da euskaraz aditz-isiltze edo *elipsi* delakoa. Bi molde ditugu aukeran:

(227) Amorratu zara(,) *eta zure onetik irten*. [atzetikoa aditz-isiltzea]

(228) *Amorratu*, eta zure onetik irten zara. [aurretikoa aditz-isiltzea]

Aditza isildutako perpausa esaldiaren erdian tartekaturik badoa, koma artean idazten da:

(229) Ikaslea, **esperimentua egin**, eta haren azalpena ematen saiatuko da.

Aditz-isiltzezko perpaus-elkarketa hori mendeko perpaus batean badoa, ez da komarik idazten:

(230) **Amorratu** eta zure onetik irten zarenez gero, alferrik dira hor argudioak.

(231) Ikaslea **esperimentua egin** eta haren azalpena ematen saiatu ondoren, irakasleak galdera xeheago batzuk egingo dizkio.

b. Aditz errepikatua osorik isiltzea

Elkartzen diren perpausetan aditza bera bada, osorik isildu ohi da bigarren agerraldian. Komarik gabe edo komaz eman litezke esaldiok:

(232) Mendekotasunezko elkarteetan, lehen osagaia mugatzailea da; bigarrena, mugakizuna.

(233) Mendekotasunezko elkarteetan, lehen osagaia mugatzailea da(,) eta bigarrena mugakizuna.

(234) a, b, m eta n zenbakiei *koefiziente* esaten zaie; c eta p zenbakiei(,) *gai aske*.

Jakina, lokailuz ere adieraz daitezke halakoak, alborakuntzaz zein juntaduraz:

(235) Mendekotasunezko elkartetan, lehen osagaia mugatzailea da; bigarrena, **berriz**, mugakizuna.

(236) Mendekotasunezko elkartetan, lehen osagaia mugatzailea da eta bigarrena, **berriz**, mugakizuna.

(237) a, b, m eta n zenbakiei *koefiziente* esaten zaie; c eta p zenbakiei, **berriz**, *gai aske*.

c. Aditz bakarra osorik isiltzea

Esaldi berezi batzuetan (atsotitzetan, esaeretan, lerroburuetan...), ohikoa da aditza isiltzea:

(238) Zor zaharra, zor txarra.

(239) Damasko, tropaz inguraturik

(240) Hiru mendizale, larri zaurituak²⁷

4. 7. Juntagailuaren segidako tartekiak

Hizkuntza prepositiboetan ez bezala, nahasgarria da euskaraz juntagailuaren segidan doan tartekiaren hasiera markatzen duen koma ezabatzea, egitura sintaktikoak ez baitu berez adierazten, komarik ezean, hor abiatzen dena tarteki bat dela (ikus 2.2.3.g.):

(241) Zenbaki atomikoa Z letraz adierazten da(,) eta, atomoa neutroa denean, elektroi-kopuruarekin bat dator.

Ez da gomendagarri honela idaztea:

(242) *Zenbaki atomikoa Z letraz adierazten da(,) eta atomoa neutroa denean, elektroi-kopuruarekin bat dator.

²⁷Irudi-oin, izenburu eta gisakoetan, komarik gabeko sekuentzia batzuk erabili ohi dira: *Donostia jendez gáinezka; amona zaharra artoa aletzen*.

Adibide horretan, tartekiaren hasiera markatzeko koma kenduz gero, *-nean* menderagailura iritsi arte ez dago asmatzerik tarteki bat dela; hala, irakurleak jarri behar du, testuan *atzera eginez*, falta den koma. Kontuan hartu, gainera, hori baino luzeagoak ere izan daitezkeela tartekiak.

Eta juntagailu nagusiarekin osatua da aurreko adibidea; kontu bera dugu tartekiaren aurrean bestelako partikula hauek doazenean ere: *zeren, nabiz (eta), ezen, zeina/non, harik eta, baizik (eta)*²⁸...

(243) Ez da erantzun zuzena, *zeren, aurreko ikasgaiaren ikusi genuenez*, graduen batuketa ezin baita horrela egin.

4. 8. Beste puntuazio-marka batzuk

4. 8. 1. Etenpuntuak

Eta abar esapidearen esanahi bertsua izan dezakete **etenpuntuak** [...]. Orokorrago: amaitu gabe geratu den sekuentzia bat markatzeko erabiltzen dira etenpuntuak.

Etenpuntuak hiru dira, eta ez da inoiz idatzi behar *-etena*, luzapena edota misterioa areagotu beharrez– hiru baino puntu gehiago:

(244) Hareak bezala, hareharriak hainbat kolore izan ditzake: marroia, horia, gorria, grisa, zuria...

Aipuetan ere erabiltzen dira, zerbait kendu dela adierazteko. Halakoetan, parentesi arrunt edo, hobe, karratu artean idatzi ohi dira:

(245) Oinordekoek jaso dezatela titulu hori [...]. Gainera, izenda dezatela itsasoan aurkitutakoa.

²⁸Partikula horiek menderakuntza adierazten dute, ez elkarketa.

4. 8. 2. *Galdera-marka eta harridura-marka*

Galdera eta harridura adierazteko berariazko zeinuak dira galdera- eta harridura-markak. Marka horiek esaldi osoari badagozkio, edo haren amaieran egokitzen badira, puntuaren lekua hartzen dute:

(246) Besterik iradokitzen al dizu testu horrek?

(247) Bikain! Egin klik hurrengo pantailara pasatzeko.

Galdera- nahiz harridura-markek eta etenpuntuek, beren grafismoan bertan, badute puntu bat²⁹. Horregatik, ez da idazten beste punturik halako marken segidan.

(248) Ez dakizula? Atzo kontatu nizun eta! Esango dizut, bada, berriro... Itxaron pixka bat...

Nola konbinatu galdera-marka, harridura-marka, etenpuntuak eta bestelako puntuazio-markak?

Galdera- edo harridura-markaren ondoren, koma, puntu eta koma, bi puntu, etenpuntuak edo beste edozein puntuazio-marka erabil daiteke:

(249) Ez dakizula?; atzo kontatu nizun eta!: non ote duzu zuk burua?

(250) Hobe izango dugu, ezta?, ezer ez esatea.

(251) Kexatu egin da eta ikusiko dugu zer dioen nagusiak. (Ez omen dugu ondo tratatzen!).

Bai galdera- zein harridura-markak eta bai etenpuntuak beren artean nahiz bestelako markekin konbinatzen direnean, esanahiak erabakiko du non kokatzen diren:

(252) Herrian geratuko da (ez du dirurik bidaiarako!), inora joan gabe.

(253) Herrian geratuko da (ez du dirurik bidaiarako), inora joan gabe!

²⁹Puntu eta komak ere bai, baina bestelakoa, komaren gainera goratua.

(254) Ez duela dirurik?...

(255) Ez duela dirurik...?

Marka biak batera ere erabil daitezke, zentzuak hala eskatzen badu:

(256) Ez dakizula?!

4. 8. 3. Parentesiak eta marra pareta

Esaldian aparteko zerbait adierazi nahi denean (esaldi izan zein ez), parentesiak edo marra pareta erabiltzen dira:

(257) Zor zaharra –**esaerak hala dio**– zor txarra da.

(258) Zenbait idazle (**besteak beste, Flaubert, Joyce eta Beckett**) iritzi horretakoak ziren.

(259) Formalki ere –**hots, ortotipografiari dagokionez**– bada aldea marren eta parentesien artean.

Parentesien marka bi ikurrek osatzen dute: ireki [(] eta itxi [)]. Esaldiaren barruan zein amaieran joan daitezke, eta esaldia osorik geratzen da parentesiek mugatzen duten zati hori kenduz gero. Marra pareta ere erabiltzen da parentesien funtzio berean (ikus 6.1.) eta koma pareta ere bai, kasu askotan (ikus 6.).

4. 8. 4. Elkarrizketa-marka

a. Marra bakarra

Elkarrizketetan, txanda bakoitza marra batez abiatzen da (marraren ondoren, ez da hutsunerik uzten):

(260) –Zer duzu?

–Ezer ez.

b. Bi marra

Elkarrizketetan, kontalariaren hitzen hasieran, berriz ere marra erabiltzen da:

(261) –Zer duzu? –galdetu zidan, galderarekin batera burua altxaturik.

–Ezer ez –erantzun nion.

–Zer duzu? –Galderarekin batera, burua altxatu zuen³⁰.

c. Hiru marra

Elkarrizketetan, hasierako marraz gainera, pertsonaiaren jardunaren barruan narratzailearen hitzak tartekatzen badira, tarteki gisa puntuatzen dira hitzok, marra pareaz:

(262) –Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu –azaldu zion saltzaileak–; eskuinekotik tira eginez gero, berriz, katalanez.

4. 8. 5. *Aipu-markak: komatxoak*

Paragrafo batean **aipu** bat txertatzen denean, komatxo artean doaz aipuari dagozkion hitzak³¹:

(264) 1972an, hau esan zuen Gandhik: «Ez dago txirotasunarena baino kutsadura txarragorik».

Aipuaren barruan narratzailearen hitzak tartekatzen badira, tarteki gisa puntuatzen dira hitzok, marra pareaz³²:

(265) «Azido sulfurikoa erabiltzen baduzue –esan zigun–, kontuz ibil zaitezte».

4. 8. 6. *Parentesi, marra pare eta komatxoen tipografiaz*

Parentesiak, marrak eta komatxoak ikusi berri ditugu. Hona zehaztasun batzuk halakoan tipografia zuzenaz:

³⁰Kontalariaren hitzak sartzen direnean, txertatzen den esaldia letra larriz hasten da, berau ez badu adierazpen-aditz batek gobernatzeko.

³¹Ikus *Ortotipografia*, EIMA, 23-25. or.

³²Paragrafo-hasierako elkarrizketa-marra erabiliko bagenu bezala, alegia: –Azido sulfurikoa erabiltzen baduzue –esan zigun–, kontuz ibil zaitezte.

- Irekierako parentesi [(], marra [-], komatxo [«] eta abarren aurretik, hutsunea uzten da, baina ondoren ez.
- Itxierako parentesi [)], marra [-], komatxo [»] eta abarren aurretik, ez da hutsunerik uzten; atzetik, aldiz, puntuazio-markarik ez badator, hutsunea uzten da.
- Itxierako parentesi [)], marra [-], komatxo [»] eta abarren *ondoren* idazten dira koma, puntu eta gainerako puntuazio-marka arruntak.

5. Esaldi barnean erabiltzeko puntuazioa: koma soilaren esparrua

Hemendik aurrera, esaldi barneko puntuazioaren gorabeherak ikusiko ditugu.

5. 1. Koma noiz

Puntua da esaldien arteko puntuazio-marka nagusia. Koma, berriz, esaldiaren barneko puntuazio-marka nagusia da. (Koma ez direnak parentesien familiako zeinu bereziak dira).

Beste modu batean esanda: esaldiaren osagaien artean (parentesi-tartekiak albora utzita), edo koma doa, edo hutsa. Beraz, behetik gora ordenaturik, honela lotu ohi dira osagaiak:

- Esaldiaren barneko osagai berean jarraitzen dugu: **markarik ez**.
- Esaldiaren barneko beste osagai bat dator: **koma**.
- Beste esaldi bat dator: **komatik gora (puntua, puntu eta koma edo bi puntu)**.

Zehaztu dezagun, bada, zein diren esaldi barruan komak bereiz ditzakeen osagai horiek. Bi kasu hauetan erabiltzen da koma:

- a. Esaldiaren gunearen aurrean koma idazten dugunean, aurreko sintagma esaldiaren **mintzagaia**³³ dela adierazten dugu:

(266) **Definizio horien arabera**, merkurioa elementua da.

Lokailuak ere berdin puntuaturik etorriko dira, noski, esaldiaren hasieran badoaz: *beraz, bestela, hala ere, izan ere...*:

(267) **Hala ere**, muga-zergak ez zituzten berriro kostara eraman.

³³Ikus 3.3.

Esaldia perpaus bakunez osatua bada, eta bestelako nahasbiderik ez badago, aukerakoa da koma idaztea edo ez:

(268) **Gaur egun(,)** Ekialde Hurbila da ekoizle nagusia.

Esaldia ezezkoa bada, are garbiago egoten da esaldiaren irakurketa zuzena, eta, beraz, aukerakoa izaten da mintzagaiaren koma idaztea edo ez³⁴:

(269) **Halako portuetan(,)** ez da ohikoa inolako arrantza-ontzirik sartzea.

Euskararen joskera kontuan harturik, garrantzi handikoa gertatzen da askotan mintzagaiaren koma, hainbat nahasbide saihesten laguntzen baitu:

(270) **Ondo puntuatzeko**, arauak zaindu egin behar dira.

(271) Ondo puntuatzeko arauak zaindu egin behar dira.

b. Esaldiaren gunearen atzean koma idazten dugunean, atzeko sintagma **gehikuntza**³⁵ dela adierazten dugu. Gehikuntza, gehienetan, esanahi osoko esaldiari gehituriko sintagma da, lehenaz gainerako galdegai bat dakarrena.

(272) Bata bestearen ondoan itsatsirik egoten dira, **geruzak osatuz**.

Adierazpenezkoak ez diren esaldi mota batzuetan –hala nola aginterazkoetan–, informazioaren antolaera bestelakoa izanik, gerta daiteke halako garrantzirik ez izatea koma horren gorabeherak:

(273) Osatu esaldiak(,) **aurreko ariketako hitzak bakarrik erabilita**.

³⁴Salbuespen aipagarriena kausalena da, komak zentzua aldatzen baitu (koma gabe, galdegaitzat interpretatzen da kausa adierazten duen sintagma: *Horregatik ez dira sartzen / Horregatik, ez dira sartzen*).

³⁵Ikus Eranskinak: *Esaldiaren informazio-antolaera*.

Adierazpenezkoak diren esaldi batzuetan ere, gerta daiteke halako alderik ez egotea, pragmatikoki, komadunaren eta koma gabearen artean:

(274) Hantxe joan zen(,) **inori ezer esan gabe**.

Ez da komarik erabiliko **esaldiaren gunean**, hots:

- **Galdegaiaren** eta aditzaren artean, komarik ez.

(275) **Zibilizazio praktikoa** izan zen Erroma.

(276) **Material supereroaleak** dira egungo ikerketen helburu.

- Aditzaren eta hizpideabarraren artean, komarik ez. **Hizpideabar** dira mintzagaiarekin eta aditzarekin batera galdegaiari informazio-testuingurua –*hizpidea*– ematen dioten sintagmak; aditzaren segidan doaz (sintagmok, aditza bezala, *tema* izaten dira, ez *rema*³⁶).

(277) Aise mugi daitezke **organo eta ehun gehienak**.

(278) Diktaturak bertan behera utzi zituen **berme konstituzionalak**.

5. 1. 1. *Subjektuaren eta predikatuaren artean, komarik ez*

Subjektuaren eta predikatuaren artean ez da komarik erabiltzen, nahiz eta doinuak etena markatu bien artean:

(279) **Metalek** elektroia galtzeko joera dute.

(280) **Hirugarren karlistaldia** 1872ko apirilean hasi zen.

(281) **Diktaturak** bertan behera utzi zituen berme konstituzionalak.

(282) **Lurra** da eguzki-sistemako hirugarren planeta.

(283) **Azido eta base komertzialak** ur-disoluzioak dira.

(284) Hiri inguruetan izan ziren **gatazkak**.

³⁶Ikus 3.3.

Subjektuak joera nabarmena du mintzagai izateko, subjektu/ predikatu bereizkuntza gramatikala islatuz. Hala ere, aditzak esaldi-amaieran zertan joan ez duen bezala, subjektuak ere ez du zertan joan esaldi-hasieran. Hitzunak aukeratzen duen informazio-antolaerak erabakiko du sintagma bakoitzaren kokapena.

Subjektuaren segidan koma ez idazteko arau hori, hala ere, hautsi daiteke inoiz, nahasbideak saihesteko. Halako kasu nabarmenena, subjektuaren segidan aditza zuzenean datorrenekoa da:

Ane etorriko da. [galdegaia: Ane]

Ane, etorriko da. [galdegaia: bai].

5. 1. 2. *Esaldi barruko juntadurari dagokion koma*

Bi osagaiko juntadura batean, **juntagailua** erabiltzen da (*a* eta *b*). Osagai gehiago direnean, komak ordezkutzen du juntagailua, azken juntaduran izan ezik (*a*, *b* eta *c*):

(285) **Azidoak eta baseak** bereizi behar dira.

(286) **Juduak, musulmanak eta kristauak** bizi ziren Tuteran.

Horrela **juntaturiko** osagaiek osagai bakar baten eginkizuna dute esaldiaren barruan:

(287) **[Juduak eta kristauak]** bizi ziren Tuteran.

(288) **[Juduak, kristauak eta musulmanak]** bizi ziren Tuteran.

5. 2. **Mendeko perpausen puntuazioa**

Mendeko perpausen barruan, koma arruntik ez³⁷:

(289) Definizio horien arabera, elementua da merkurioa.

³⁷Kontuan izan, nolana ere, ager daitezkeela bestelako komak mendeko perpausentzat. Esate baterako, zerrendak egitean (*Fluorra, kloroa, bromoa, iodoa eta astatoa aztertzen ditugunean*(,)) ez-metalen propietateak aipatuko ditugu) edo tarteki bat sartzean (*Erne ibili behar da, zeren, gutxien uste denean, arazoa sor baitaiteke*).

(290) **Definizio horien arabera elementua denez**, Taula Periodikoan aurkituko duzu merkurioa.

Doinuak ere nabarmen bereizten ditu kasu biak, eta aski da horri jaramon egitea egoki puntuatzeko ([↑] geziak adierazten du mintzagaiaren doinu-gorabehera):

(291) Definizio horien arabera ↑ / elementua da merkurioa.

(292) Definizio horien arabera elementua denez ↑ / Taula Periodikoan aurkituko duzu merkurioa.

Menderatu batzuk komaz idazten dira, eta beste batzuk komarik gabe:

a. Komaz lotzen dira, besteak beste, *-enez* zein *bait-*menderagailua daramaten perpaus kausal-esplikatiboak:

(293) **Penintsulako merkaturako bidea zabalik uzten zenez**, onura ekarri zien horrek merkatariari.

(294) Horrek onura ekarri zien merkatariari, **Penintsulako merkaturako bidea zabalik uzten baitzien**.

b. Komarik gabe lotzen dira *-(e)la* atzizkia daramaten perpaus osagarriak:

(295) Azpimarratu behar dugu **XIX. mendean Espainiak Amerikako eta Asiako koloniak galdu zituela**.

c. Komarik gabe lotzen dira zehar-galderak *-(e)n* atzizkiaz eraturiko perpaus osagarriak):

(296) Esan ezazu **zenbat gai dituen segidak**.

d. Perpaus zirkunstantzialak-eta, komaz zein komarik gabe lot daitezke, kasuan-kasuan esaldian betetzen duten funtzio informatiboaren arabera:

(297) **Ahal duenean**, ekarriko du.

(298) **Ahal duenean** ekarriko du.

5. 3. Banakarien puntuazioa (*bai... bai...; edo... edo...*)

Banakariak erabiltzen direnean, komaz bereizten dira osagaiak esaldian. Egitura horiek apur bat aldentzen dira esaldiaren doinugarabehera arruntetik³⁸:

- (299) **Bai** beltza, **bai** zuria, garbi dago, egokiak dira.
- (300) Zeuk erabaki: **edo** liburuak erosten duzu, **edo** norbaiti eskatu beharko diozu.
- (301) Hor dator ahatea, **orain** hondora, **orain** igeri.

Egitura osoaren mugan (amaieran edo hasieran) koma idatzi ala ez, arau arrunten arabera erabakitzen da:

- (302) **Bai** batzuk, **bai** besteak azterketara aurkeztu ziren.
- (303) **Batean** ondo, **bestean** gaizki, ehun urte betetzera iritsi da.
- (304) **Urtea** joan, **urtea** etorri, soilduz joan ziren oihanak.

Egiturok galdegai direnean, juntagailuak erabili ohi dira komen ordez:

- (305) Bai batzuk **eta** bai besteak ikusi genituen jaialdian.
- (306) Batzuk **zein** besteak ikusi genituen jaialdian.

5. 4. Zerrendaketa konplexuen puntuazioa

Zerrendaketa batzuk sinpleak dira. Adibidez:

- (307) liburuak, diskoak, jokoak eta jostailuak

³⁸Egitura banakaria mendeko perpaus baten osagai bihurtzen bada, ez da komarik idazten: *Bai beltza (eta) bai zuria egokiak direlako utzi dizut aukeratzeko.*

Beste batzuk, berriz, konplexuak³⁹:

(308) liburuak, handi nahiz txiki; diskoak, binilozkoak zein digitalak;
haurrentzako jokoak(,) eta bestelako jostailuak

Alegia, puntuazio-marka bakoitza maila bat igoz era daitezke
zerrendaketa konplexuak. Beraz:

Zerrendaketa sinplea:

a [koma] b [koma] c [eta] d

Zerrendaketa konplexua:

A [puntu eta koma] B [puntu eta koma] C [koma + eta] D

Zerrendaketa konplexuetan, hala, osagaiak komak eraman
ditzakete barnean.

³⁹“Zerrendetan zenbaki dezimaldunak agertzen direnean, gutxienez, zenbakiak ondo bereizi eta banantzeko, argitasunaren izenean, zenbakien artean puntu eta koma erabiltzea gomendatzen dugu; izan ere, koma zenbaki dezimaldunen parte osoa eta parte dezimala bereizteko erabiltzen da”, *Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak*, EIMA, 50. or.

6. Tartekien puntuazioa

Tartekiak era askotakoak izan daitezke egituraz, lokailuetatik hasi eta esaldi osoetaraino:

- (309) Helburua lortzeko urratsak, **aldiz**, zailagoak izan ziren.
- (310) CO₂ isurketen per capita indizea (**zenbat tona biztanleko eta urteko**) Europako txikienetakoa da Espainian.
- (311) Gainerako gaiek **–nortasunaren garapenak, giza harremanek, maitasunak eta gatazken maneiuak–** tratamendu murriztagoa dute, aurreko bi gai horien aplikazioa dira eta.
- (312) Ikaslea gelan sartu da **–ez du beste aukerarik izan–**, nahiz jolastokirako asmoa izan.

Tartekiak koma artean, parentesi artean edo marra artean joan daitezke:

- (313) Horrekin, **garbi dago**, ez da gauza handirik irabazten.
- (314) Horrekin (**garbi dago**) ez da gauza handirik irabazten.
- (315) Horrekin **–garbi dago–** ez da gauza handirik irabazten.

Doinuak ere garbi markatzen du zein den tartekiaren esparrua: tartekiaren aurretik doanak gorantz egiten du, hantxe *zintzilik* utziz esaldiaren haria; tartekia, osorik, beheragoko tonu batean doa; tartekia amaiturik, berriro heltzen dio esaldiak aurretik zintzilik utzitako tonuari:

- (316) →Hori ikusita↑ [↓ez zekien ondo non sartzen zen] →ontzikoekin biltzea erabaki zuen.

Tarteki-marka guztiek dituzte ezaugarri funtsezko batzuk:

- Zeinu pareak dira (tartekia hasi/ireki eta gero amaitu/itxi egiten da).
 - (317) Hirugarren karlistaldia **–Euskal Herriko bigarrena–** 1872ko apirilean hasi zen.

- Esaldiaren barruan ez ezik, esaldiaren hasieran edo amaieran ere joan daitezke⁴⁰.

(318) Enpresa horiek baliabide mineral asko ustiatzen dituzte (ikatz, kobrea...).

Tartekiak markatzeko koma pareak baditu berezitasun nabarmen batzuk, puntuazioaren antolaeran eragina dutenak:

- Koma ez da tartekietarako zeinu espezializatua.
- Puntuazio nagusiagoak irentsi egiten ditu tarteki-komak.

6. 1. Parentesiak eta marra pareta

Parentesiak eta marra pareta dira tarteki-marka espezializatuak. Parentesi-marrek tartekiaren *apartekotasuna* azpimarratzen dute.

Parentesien eta marren arteko aldea ez dago guztiz finkaturik, berez. Testuinguru batzuetan, eta zeinuen arteko gorabehera ortotipografikoengatik, joera garbia dago parentesiak erabiltzeko; bereziki, puntuaren aurretik.

(319) Sevillako Batzorde Gorena sortu zuten; maiatzaren 27an, hain zuzen. Frantsesek Espainia okupatua zuten orduan.

(320) Sevillako Batzorde Gorena sortu zuten (**maiatzaren 27an, hain zuzen**). Frantsesek Espainia okupatua zuten orduan.

(321) Sevillako Batzorde Gorena sortu zuten **—maiatzaren 27an, hain zuzen—**. Frantsesek Espainia okupatua zuten orduan.

⁴⁰Esaldiaren hasieran marra nahiz parentesi arteko tarteki bat ematea ez da zuzena erabilera arruntean, baina bai erabilera berezi batean: testu zati bat falta dela, isildu dela edo suposatuta behar dela adierazteko, parentesi karratuak erabili ohi dira ([...]). Halako tartekia *testutik kanpora* geratzen da, nolabait. Baliabide tipografiko bera erabiltzen dugu *kanpotiko argibideak* emateko. Zeinu batzuk mugatzeko ere erabili dugu [;], [, eta]...

Azken adibidean, puntua dator tartekiaren ondoren, eta zuzena da, izatez, tartekia marra artean ematea. Hala ere, horrelakoetan, marra pareta saihestu eta parentesiak erabiltzen dira normalean⁴¹.

Parentesiak erabili ohi dira, halaber, puntu arteko unitate osoak biltzeko. Komatxo artean bezala, parentesi artean ere esaldi osoak joan litezke:

(322) Areagotu egin zen eskualdeen ohiko nagusitasuna itsas arrantzan. (Prozesu hau XX. mendearen hasieran osatu zen).

Euskararen joskera kontuan hartuta, egokia da ondoko hitzei dagozkien parentesiak ere erabiltzea (koma beharko dute, gutxienez, aurretik, nahasbiderik gerta ez dadin):

(323) Gero, (inoiz txapela irabazi duten) bertsolariak omenduko dituzte.

(324) Nolabait esan behar eta, (eskuin-joskerako) menderatu arinak esango diegu.

6. 2. Bi puntuak eta marra pareta

Hona esaldiak elkartzean/tartekatzean erabiltzeko jarraibide bikoitza:

- Bi puntuen ondorengoarekin, amaitu egiten da esaldia.

(325) **Etxean geratu da neskalgunaren zain:** ez zuen, noski, inora joateko gogorik.

- Esaldia edo esaldi-elkarketa hor amaitzen ez bada, marra edo parentesi artean ematen da tartekatzen dena.

(326) Etxean geratu da **-ez zuen, noski, inora joateko gogorik-**neskalgunaren zain.

⁴¹Parentesien eta marra parearen arteko aldeak aski zalantzarriak dira, oro har. Gure ortotipografia-ohar hau ere ez bedi har inolako dogmatzat, bada-eta gorabeherarik erabileren artean. Gure ustez testu zainduetan joera nagusia denari atxiki gatzazkio.

- (327) Etxean geratu da (**ez zuen, noski, inora joateko gogorik**) neska-lagunaren zain.

Okerrak dira honelakoak:

- (328) ***Etxean geratu da:** ez zuen, noski, inora joateko gogorik, neskalagunaren zain.

Gauza bera gertatzen da bi puntuek lotzen dituztenak esaldi ez direnean ere:

- (329) Badira zenbait idazle hori diotenak: **Flaubert, Joyce, Nabokov...**
- (330) Badira zenbait idazle **–Flaubert, Joyce, Nabokov...–** hori diotenak.
- (331) *Badira zenbait idazle: **Flaubert, Joyce, Nabokov...** hori diotenak.

6. 3. Tarteki arrunten oinarrizko sailkapena

Mintzagai edo gehikuntza ez direnei esaten diegu hemen *tarteki arrunt*. Horiek izango ditugu gogoan hemendik aurrera:

- (332) Gizakiak, **bipedia izanik**, gehienez ere 40 km/h-ko abiadura har dezake.
- (333) Uretan, **presio jakin baterako**, gasen disolbagarritasuna tenperatura igotzean txikiagotzen da.

Hona tartekien sailkapen oinarrizko bat:

- esaldi diren tartekiak (ikus 6.4.)
- esaldi-osagai arruntez osaturiko tartekiak (ikus 6.5.)
- lokailuak (ikus 6.6.)
- deikiak (ikus 6.7.)
- aposizioak (ikus 6.8.)

6. 4. Esaldi diren tartekiak

Tartekia esaldi denean, koma pareta baino egokiagoak izaten dira marra pareta edo parentesiak:

- (334) Lurralde hauetan(,) nekazaritza garatu zen **(baskoiek nekazaritza-sistema berriak ikasi zituzten)** erromanizazioa hedatzearekin batera.
- (335) Lurralde hauetan(,) nekazaritza garatu zen **–baskoiek nekazaritza-sistema berriak ikasi zituzten–** erromanizazioa hedatzearekin batera.

Tartekian eman duguna esaldi-juntaturaz ere adieraz daiteke:

- (336) Lurralde hauetan(,) nekazaritza garatu zen erromanizazioa hedatzearekin batera, **eta** baskoiek nekazaritza-sistema berriak ikasi zituzten.

Juntatzen den esaldia, amaieran eman beharrean, haren barnera aurreratu daiteke:

- (337) Bazekien **–baina ez zitzaion axola–** zer ondorio zekarren horrek.

Juntagailua agertzeak aski garbi markatzen du esaldi bien arteko lotura. Ez dago, beraz, marra parera jo beharrik; aski izaten da koma pareta:

- (338) Bazekien, **baina ez zitzaion axola**, zer ondorio zekarren horrek.

Esaldi-alborakuntza ere erabil liteke:

- (339) Hori ikusita, ontzikoekin biltzea erabaki zuen; **ez zekien ondo non sartzen zen.**
- (340) Hori ikusita, ontzikoekin biltzea erabaki zuen: **ez zekien ondo non sartzen zen.**

Amaieran ere adieraz daiteke, tarteki-markaz, *aparte* bat dela:

- (341) Hori ikusita, ontzikoekin biltzea erabaki zuen (**ez zekien ondo non sartzen zen**).

Bestalde, koma artean zein marra artean eman daitezke tarteki berezi batzuk (*bistan da, garbi dago* = noski; *ziur nago, ez da dudarik* = zalantzarik gabe):

- (342) Ikasleak, **ziur nago**, bat etorriko dira erabakiarekin.
(343) Ikasleak **–ziur nago–** bat etorriko dira erabakiarekin.

6. 5. Esaldi-osagai izan daitezkeen tartekiak

Esaldi-osagai batzuk tarteki dira esaldi batzuetan, eta, beste batzuetan, ez:

- (344) Disolba ezazu ase arte gatza uretan.
(345) Disolba ezazu, ase arte, gatza uretan.

Tarteki modura markatzen badira, *aparte* edota bereziki nabarmendurik geratzen dira.

Tarteki direla markatzeko, ez da beharrezkoa (barnean komarik ez badugu) koma paretik gora jotzea. Komarik badago, hala ere, tarteki-komak eta koma arruntak bereiztearren, marra edo parentesi bidez markatu beharko da tartekia:

- (346) Iker **–zalea denez, eta amorratua, txiki-txikitatik–** jolasean ibiltzen da egun guztian.

Beste aukera bat izan daiteke tartekiaren barruan komarik gabeko formulazio bat bilatzea, kanpoan koma pareta nahikoa izan dadin tartekia mugatzeko:

- (347) Iker, zale amorratua denez txiki-txikitatik, jolasean ibiltzen da egun guztian.

6. 6. Lokailuak

Koma pareaz ematen dira lokailuak ia beti:

- (348) Iritzi-testu bat da, **beraz**, eta egileak trantsizio politikoaren azterketa egiten du.
- (349) Helburua lortzeko urratsak, **aldiz**, zailagoak izan ziren.

Lokailuak era askotakoak dira⁴²:

- esaldiak: *bistan da / garbi dago / ez dago zalantzarik / esan gabe doa...*
- esaldi-osagaiak: *bistan/itxura/antza denez, abal dela...; horiek horrela (izanik), hala eta guztiz (ere), kontuak kontu (direla...)...; antza/nonbait/ustez, gainera, jakina, berriz, bestela, hargatik, hala ere, ziur aski, oro har...*
- berezkoak, beti lokailu direnak: *noski, hots, horratik, beraz, beharbada, hortaz, bestalde, ordea, alegia, osterantzean...*

Lokailuek ez daramate komarik barruan. Koma pareta aski da, beraz, lokailua mugatzeko. Esalditik bereziki aparteko zerbait adierazi nahi bada, hala ere, bada aukera marra nahiz parentesi artean emateko ere:

- (350) Lokailuak (**oro har**) koma artean ematekoak dira.

Koma artean eman ohi dira galderazko edo harridurazko esaldi lexikalizatuak ere: *kontuz/kasu(!), ezta?, alajaina(!), nork daki(?), harrapa ezak(!), zergatik ez(?), zer egingo zaio(!)...*

- (351) Esandako hori, **nork daki**, egia izan liteke.
- (352) Ekarri duzu, **ezta?**, eskatu nizuna.

⁴²Sailon arteko muga ez da beti guztiz argia edo bistakoa.

Lokailu batzuk komarik gabe ere idatz daitezke, nahasbiderik eragiten ez badute⁴³:

(353) Ez duzu pentsatu, **beharbada**, beranduegi dela.

(354) Ez duzu(,) **beharbada**(,) pentsatu...

(355) Gehiegi pentsatu duzu(,) **beharbada**.

Oso gutxi dira, hala ere, komarik gabeko erabilera berezi hori onartzen duten lokailuak eta testuinguruak.

Bada testuinguru bat, ordea, horretarako joera areagotzen duena: tarteki arrunt baten barruan lokailu bat doanekoa. Zer egin, adibidez, esaldi honetako tartekiaren barruan *alegia* tartekia sartu nahi badugu?:

(356) Hurbilenekoa ere, Zumarragakoa, urruntxo geratzen zaie.

Lehen bezala, bi aukera daude, koma ezabatzeak nahasterik eragiten ez duen lokailuen kasuan:

(357) Hurbilenekoa ere, **Zumarragakoa alegia**, urruntxo geratzen zaie.

(358) Hurbilenekoa ere **–Zumarragakoa, alegia–** urruntxo geratzen zaie.

Parentesiak, marra pareta eta koma pareta komeni zaigun moduan konbina litezke.

6. 6. 1. *Foku-adberbioak*

Foku-adberbio honako hauei esaten diegu: *bereziki, behintzat, bakarrik, soilik, baino ez, batez ere, batik bat, nagusiki, bederen...* (ikus 21. oin-oharra):

(359) **Batez ere** beirarekin gertatzen da hori.

⁴³Juntagailua lokailu modura puntuatzea ez da egokia. Adbertsatiboan gertatzen da sarrienik: *Uste nuen adostuko genuela. Baina ez nator bat* (**Baina, ez nator bat*).

- (360) Eskualde honetako landaredia **nagusiki** haritzez eta lizarrez osaturik dago.
- (361) Kant filosofoak ez ditu adigaiak **soilik** iraultzen.
- (362) Kasu horretan, funtzioa taularen bidez **bakarrik** definitzen da.
- (363) Aipatu beharra dago idazki-bilduma bat **bereziki**.

Foku-adberbioak *ere* partikula bezala puntuatzen dira erabilera batean, komarik gabe (edo, aurretik ematekotan, *are* partikula bezala):

- erabilienak **ere**
- are** erabilienak

Foku-adberbioaren eta fokuarien artean ez da komarik idazten:

- (364) **Iluntzean batez ere**, mutikoek lo egiten zuten etxoletan entzuten ziren zaratak.
- (365) Iluntzean, **batez ere mutikoek** lo egiten zuten etxoletan entzuten ziren zaratak.

Tarteki modura ere joan daitezke, hala ere, foku-adberbioak. Erabilera horretan, ez doaz bere fokuariekin lotuta, eta sintaxiak ez du zehazki argitzen esaldiaren zein osagaiari dagozkion. Kasu horretan, koma artean doaz:

- (366) Iluntzean, **batez ere**, mutikoek lo egiten zuten etxoletan entzuten ziren zaratak.
- (367) Idazki-bilduma bat aipatu beharra dago orain, **bereziki**.

6. 6. 2. Hots, alegia *eta gisakoak*

Hots eta *hau da* lokailuak modu batean baino gehiagotan idatz daitezke:

- (368) Ale monoikoak ere badaude, **hots**, sexu biak % 50ean banatuta dauzkaten landareak.
- (369) Ale monoikoak ere badaude; **hots**, sexu biak % 50ean banatuta dauzkaten landareak.

- (370) Ale monoikoak ere badaude. **Hots**, sexu biak % 50ean banatuta dauzkaten landareak.

Haien sinonimoa den *alegia* lokailuak⁴⁴, koma artean emanda, anbiguotasuna sor dezake. Kasu horietan, komeni da maila bat igotzea kometariko bat:

- (371) Kapitalismoa zentzu hertsian ulertzen da; **alegia**, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa.
- (372) Kapitalismoa zentzu hertsian ulertzen da. **Alegia**, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa.

Alegia bezala, eta *hots* edo *hau da* ez bezala, lokailu gehienak eta erabilienak (*beraz, izan ere, hain zuzen, gainera, azken batean...*) ez dira *noranzkodunak*, eta koma baino zerbait gehiago eskatzen dute hainbat testuingurutan:

- (373) Osagarri hori ezin liteke izenarekin lotu; **beraz**, solte dago perpaus horretan.
- (374) Diru-politika ekonomia gidatzen saiatzen da; **izan ere**, diru-aldagaia eta kreditua kontrolatzen ditu.
- (375) Berehala eskola berri bat sortu zen; **hain zuzen**, neogramatikariena.
- (376) Balbulek inertzia bat dute, **gainera**; lana behar da gasak xurgatu eta botatzeko.

Ez da komarik idazten *hala nola, erran nahi baita...* moduko esamoldeen ondoren:

- (377) Deus, **erran nahi baita** hutsaren hurrengoa⁴⁵.
- (378) Erreginaren ordezkari zegoen han, **erran nahi baita** tenpluaren bigarren ordaintzaile.
- (379) Bolumen txikiko hondakin solidoak, **hala nola** papera, zigarrokinak...

⁴⁴*Alegia* lokailuaz ikus zabalago *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*, EIMA, 26. or.

⁴⁵Badira, hala ere, kasu berezi batzuk: *Deus, erran nahi baita: hutsaren hurrengoa*.

- (380) Egitura batzuk aurkitu ziren, *bala nola* burdin mearen erredukzioarako labe batzuk.

6. 7. Deikiak

Zuzeneko deia egin nahi bazaio solaskideari, haren izena edo bestelako deskribapena erabiltzen da:

- (381) Jakin behar duzu, **Jon**, hori ez dela horrela.

- (382) Egin ezan galdera zuzen, **Edurne!**

Izen bereziaren lekuan, era askotako sintagmak ager daitezke deiki modura:

- (383) seme
(384) ene seme(a)
(385) alaba maitea
(386) irakurle
(387) deabru gaizto hori

Deikiak koma artean ematekoak dira. Oker daude, beraz, honelakoak:

- (388) *Ongi etorri **Patxi**. [Ongi etorri, Patxi]
(389) *Zorionak **aitona**. [Zorionak, aitona]

Izan ere, deikiak komarik gabe idaztea nahasbide-iturri gerta liteke:

- (390) Zer moduz, **Ane?**
(391) Zer moduz Ane?

Nahasbide-arriskurik gabe ere, komaz markatu beharra dago deikia:

- (392) Agur, **maitea**.
(393) Gau on, **ama**.
(394) Kontuz, **enetxo**.

6. 8. Aposizio-tartekiak

Aposizio espezifikatiboak komarik gabe idazten dira:

- (395) **Fahrenheit eskala** eta **Celsius eskala** diferenteak dira.
- (396) **Dopler efektua** landua dute.
- (397) XIX. mendean **Portland zementuak** iraultza ekarri zuen.

Aposizio esplikatibo edo zehaztaileak, berriz, koma artean ematen dira:

- (398) 1970eko hamarkadan, petrolio-enpresa batzuek, **Zazpi ahizpak izenekoek**, munduko produkzioa kontrolatu zuten.
- (399) Erroman, **Zesarren sorterrian**, gosetea zabaldu zen.
- (400) Frantziako iraultza, **Europak XVIII. mendean izandako gertakari politiko bortitzena**, 1789an gertatu zen.
- (401) Bihar emango dute komedia bat, **oso itxura onekoa**, Zinemaldiko sail berezi horretan.

Zenbait kasutan, aposizio komunztatuaren ordean, datu bat gehitzen da, parentesi artean:

- (402) Espainiako Gerra Zibila (**1936-1939**) historialari askok ikertu du.
- (403) Araian (**Araban**) oraintsu arte iraun du bizirik artzain-kulturak⁴⁶.

Aposizio-tarteki batzuk *erlatibo gibeleratuak*⁴⁷ dira:

- (404) Cannes-en arrakasta handia izan duen komedia bat ikusi nahi nuke.
- (405) Komedia bat ikusi nahi nuke, **Cannes-en arrakasta handia izan duena**.
- (406) Ezagutzen ditut horrela jokatuko luketen gazte batzuk.
- (407) Gazte batzuk ezagutzen ditut, **horrela jokatuko luketenak**.

⁴⁶Datua non txertatzen den ere zaindu behar da, noski, esateko modukoa izan dadin esaldia: **Araia*ko (**Araba**) etxe batean(,) aztarna batzuk aurkitu dituzte.

⁴⁷Ikus *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*, EIMA, 1.3.3.1.

Halako aposizio asko komaz zein –nahasbiderik sortzen ez badute– komarik gabe idatz daitezke:

(408) Ez dut ezagutzen gazterik(,) horrela jokatu lukeenik.

(409) Bihar emango dute komedia bat(,) oso itxura onekoa.

Eranskinak

Esaldiaren informazio-antolaera

Atal honetan, sintaxiaren eta informazioaren antolaeraren arteko erlazioei dagozkien kontu batzuei helduko diegu. Argibideok ez dira, beharbada, guztiz premiazkoak puntuazio-irizpide eta jarraibideak landu dituenarentzat, baina lagungarri gerta daitezke irizpideok sendotzeko eta sakontzeko.

Beraz, jakinik ere (eta alde zurretik ohartarazirik) gogortxo gerta dakizkiekeela xehetasunok irakurle batzuei, hemen ematea erabaki dugu, gehigarri gisa.

Esaldi barneko komak idazteko orduan, hiztunak aukeratzen duen informazio-antolaera da erabakigarria. Hauek dira gakoak, esaldiaren hasieratik amaierara, hurrenkera honetan:

- zer hizpide-abiapuntu hartzen duen (**mintzagaia**)
- zer informazio ematen duen nagusitzat (**gunea**)
- zer informazio eransten duen (**gehikuntza**)

Horietatik, gunea⁴⁸ da ezinbestean agertu behar duena⁴⁹. Mintzagaia zein gehikuntza agertzea, berriz, ez da ezinbestekoa; agertzen badira, eten batez bereizten dira gunetik, eta komak marka dezake eten hori (salbuespen nagusi batekin: subjektua den mintzagaia).

⁴⁸Gunea = galdegaia + aditza + hizpideabarra(k).

⁴⁹Non eta ez den esaldia etenik uzten: *Hori esan badu...*

1. *Hizpideabarra eta gehikuntza*

Topiko (*mintzagai*) ez den hizpideari edo, hiztegi teknikoagoz, *temari* **hizpideabar** esango diogu; aditzaren ondoren doa. Hizpideabarraren aurrean ez da komarik idazten:

- (1) Horiek ere ederki moldatzen dira **batere hezurrik gabe**.
- (2) Hartara, bigarren fronte bat ireki zen **Europako eremuan**.

Gehikuntza esango diogu esanahi osoko esaldiari gehituriko sintagmari, lehenaz gainerako galdegai bat dakarrenari⁵⁰:

- (3) Bata bestearen ondoan itsatsirik egoten dira, **geruzak osatuz**.
- (4) Frankismoaren gainbehera eragin zuen horrek, **Franco hil eta gero**.

Hona, bada, funtzio informatiboen oinarritzko eskema:

mintzagaia(k) / GALDEGAIA + aditza (+ hizpideabarra(k)) / gehikuntza(k)

- (5) *Nahi duenean*(,) ONDO egiten ditu gauzak mutil horrek, laguntzarik gabe.
- (6) *Mutil horrek* ONDO egiten ditu gauzak, nahi duenean.

Hizpideabarraren eta gehikuntzaren arteko aldea ez da beti garrantzitsua esanahi pragmatikoaren aldetik (ikuspuntu desberdinez antola baitaiteke informazioa); halakoetan, aukerakoa da koma erabiltzea (gehikuntza) edo ez (hizpideabar).

- (7) Frankismoaren gainbehera eragin zuen horrek Franco hil eta gero.
- (8) *Nahi duenean*(,) ONDO egiten ditu gauzak mutil horrek laguntzarik gabe.

⁵⁰Koma erabiltzeak hizpideabarretik bereizten du gehikuntza:

Bata bestearen ondoan itsatsirik egoten dira, geruzak osatuz. [= geruzak osatuz egon ere]

Frankismoaren gainbehera eragin zuen horrek, Franco hil eta gero. [= Franco hil eta gero eragin ere]

Esan dugun bezala, [GALDEGAIA + aditza + hizpideabarra(k)] multzoari **gune** esango diogu. Gainerakoari, **periferia**.

Esaldiaren prologoaren eta epilogoaren antzekoak dira, hurrenez hurren, mintzagaia eta gehikuntza: esaldiaren parte dira, baina gunetik apur bat bereziak; gehikuntza, batez ere (beste galdegai bat izanik, beste esaldi baten balioa du semantikoki).

Esaldiaren gunea segida trinko bat da, komarik gabea (beti bezala, ahaztekoak ditugu orain tartekien eta zerrenden komak). Aditzaren inguruan antolatzen da gunea, eta galdegaia du osagairik funtsezkoena (aditzaren aurrean doala, oro har)⁵¹.

Izan ere, hizpideabarrak esaldiaren hizpidea osatzen du aditzarekin eta mintzagaiarekin batera: informazio ezaguntzat baliatzen du hiztunak hizpide hori, oinarri gisa, han txertatzeko ondotik galdegaiak emango duen informazio berria. Demagun, esate baterako, hiztunak gogoan duena lasterketa jakin bat dela. Hari buruzko zerbait galdetu edo adierazi nahi badu, hizpideabarrari dagokion tokian agertuko da «lasterketa» sintagma, hots, aditzaren atzean eta komarik gabe:

(9) Nola doa lasterketa?

Bizkor-bizkor doa lasterketa.

Funtzio informatiboen xehetasun teknikoak gorabehera, esaldiaren osagaiak argitzeko eta dagokien puntuazioari buruzko zalantzak erabakitzeke, aski izaten da esaldi bakoitzari zer galdera legokiokkeen pentsatzea, hark emango baitigu eredu argi eta garbi.

Izan ere, galderetan nabarmenagoa da funtzio informatiboen banaketa, eta doinuan ere nabarmenago ageri dira esaldiaren osagaiak.

⁵¹Aditzik gabeko esaldia bada (hots, hizkera teknikoan, *frasea*), galdegaia bakarrik ager daiteke: *Kontuz (ibili)*.

Ikus dezagun, bada, zein diren galdera motak, eta zer antolaera eta puntuazio dagokien galderon araberako esaldiei.

- Galdera orokorra

Esaldi batzuk markatu gabeak dira; halakoetan, dena da, nolabait esan, galdegai (edo *rema*, behinik behin). Esaldi horien hitz-hurrenkerari *neutro* esan izan zaio, *oinarrizko* ere esan dakiok:

(10) Trena Zarauzko geltokian sartu da.

Markatu gabeko esaldi horri galdera orokorra dagokio (galdera orokorreko aditza komodin modukoa da, eta erantzunean zehazten da):

(11) Zer gertatu da?

Trena Zarauzko geltokian sartu da/dela.

Beste esaldi batzuek, ordea, galdera orokorra izanda ere, ez dute erabat hitz-hurrenkera neutroa; alegia, erliebe-jokoa (enfasi-jokoa) gerta liteke:

(12) Trena sartu da Zarauzko geltokian.

(13) Zer gertatu da Zarauzko geltokian?

Trena sartu da/dela (Zarauzko geltokian).

(14) Zarauzko geltokian(.) trena sartu da.

Zarauzko geltokian(.) zer gertatu da?

Zarauzko geltokian(.) trena sartu da.

Zarauzko geltokian trena sartu dela [ikusit du].

- Zati-galderak

Esaldi gehienetan, hala ere, hautsi egiten da ordena neutroa, hizpide/galdegai erliebe-jokoaren indarrez. Zati-galdera bat egon ohi da esaldi horien azpian:

- (15) **Zarauzko geltokian** sartu da trena.
- (16) **Poliki** sartu da trena Zarauzko geltokian.
- (17) **Gaur goizean** sartu da trena Zarauzko geltokian.

Zati-galderetan, *non, nola, noiz...* galde-hitzari dagokio galdegaia (aditza jada hizpidearen parte da, eta bat bera da galderan eta erantzunean):

- (18) **Non** sartu da trena?
- (19) **Nola** sartu da trena Zarauzko geltokian?
- (20) **Noiz** sartu da trena Zarauzko geltokian?

Aditza galdegai(aren parte) bada, *egin* aditz komodina ageri da galderan, erantzunak zehaztu dezan:

- (21) Zer **egin** du trenak ziztua jo ondoren?
Ziztua jo ondoren(,) zer **egin** du trenak?

Mintzagaia beti geratzen da esaldiaren gunetik kanpo (eta, beraz, galdera-doinu berezitik ere kanpo), eta komak markatu ohi du muga hori:

- (22) Orduan(,) **zer** gertatu da?
- (23) Une honetan(,) **nola** doa lasterketa?
- (24) Oraindik ere(,) **bizkor** (al) doa lasterketa?

Galdera horien erantzunen araberakoak dira esaldiaren mintzagai/galdegai erliebe-jokoaren aukerak:

- (25) Orduan(,) **lasterketa bat-batean gelditu da.**
- (26) Une honetan(,) **geldi samar** doa lasterketa.
- (27) Oraindik ere(,) **bizkor** doa, bai, lasterketa.

Kasu askotan, beste zati-galdera bat gehitu daiteke segidan:

- (28) Nora joango zarete? / Norekin?

Koma idazten badugu, komaren segidakoa bigarren galdera horri dagokion erantzuna dela adierazten dugu, hots, aurreko hizpide berari dagokion bigarren galdegai bat (gehikuntza):

(29) Bartzelonara joango gara bidaian, **historia-irakaslearekin**.

Gehikuntzaren kasuan, aukerakoa da komatik gorako puntuazioa erabiltzea ere (dagokion galdera bikoitzean bezala):

(30) Bartzelonara joango gara; historia-irakaslearekin (joan ere).

(31) Bartzelonara joango gara. Historia-irakaslearekin (joango gara).

2. Adjuntuen eta argumentuen aukerak, funtzio informatiboei dagokienez

Hizkuntza ezinbestean lineala ez balitz, esfera bat litzateke esaldiaren irudikapenik onena, atomoarena garai batean bezala: nukleo bat erdian (aditza edo predikatu nagusia); haren inguruko orbitan, lotura estuko zer batzuk (argumentuak: predikatuak eskatuak), eta, orbita periferikoagoetan, beste zerak (adjuntuak: zirkunstantzialak-eta)⁵².

Hizpideabarra osatzen duten sintagmen artean, argumentuez gainera, adjuntuak ere joan daitezke, hala nola (bereziki) zirkunstantzialak.

Aditzaren argumentuak direnak, definizioz (haiek gabe, ez dago osatua esaldia), aditzarekiko lotura estuagoa dute adjuntu soilek baino:

- subjektua (*neskak*)
- objektua (*dei*)

⁵²Horrainokoak oinarritzko sintaxiaren maila abstraktuari dagozkio. Gero, oinarri horren gainean, funtzio informatibo pragmatikoei eragingo dituzte praktikan hitz-ordenaren jokoak.

- datiboa (*hegaztiei*)
- osagarria (*beregana etortzeko*)

(32) *Neskak dei egin die hegaztiei beregana etortzeko*

Osagarri zuzen delakoa (objektua) eta gainerako *osagarriak* (predikatuaren argumentu-egitura edo -sarearen parte direnak), denak dira predikatuaren argumentuak, hark berez eskatzen dituenak, eta horregatik dira halako etenik gabeak gunearekiko. Semantikoki ere, antzeko erlazioak adieraz ditzakete, kasua kasu:

(33) Ondo tratatu ditu lagunak.

(34) Ondo portatu da lagunekin.

Ez da inola ere debeku argumentu bat mintzagaitzat nabarmentzea, aukerako koma eta guzti; tartean kontraste edo korrelazioen bat bada, bereziki (oso markatuak izaten dira halako joskerak):

(35) **Hegaztiei(,)** berarengana etortzeko dei egin die neskak. [Txakurrari, berriz...].

(36) **Arto aleak(,)** hegaztien artera jaurti zituen. [Hezurak,...].

(37) **Berarengana etortzeko(,)** oiloei egin zien dei [, ez txakurrari].

Arauz kanpokoa da argumentuak gehikuntza gisa ematea, haiek gabe aurrekoak ez baitu zentzu osorik:

(38) *Ondo tratatu ditu, lagunak⁵³.

Mintzagai izatea, berriz, libre dute argumentuek; subjektuak, izan ere, joera nabarmena du mintzagai izateko, subjektu/predikatu bereizkuntza gramatikala islatuz; gainerako argumentuak, berriz, predikatuaren parte dira, eta, beraz, bortxa handiagoa egin behar da horiek mintzagai-kokagunera ekartzeko.

⁵³Zuzena litzateke, baldin eta «lagunak» deikia balitz eta aipatzen ez den beste bat objektua.

Puntuazioari gagozkiola, bada, tirabira moduko bat gertatzen da mintzagaia argumentu bat denean: alde batetik, mintzagaiei oro har dagokien koma eskatuko luke (intonazioa lekuko), baina, bestetik, syntaxiz hain estu lotua egonik aditzarekin, nahi litzateke adjuntuak bezain bereizirik ez dagoela adieraztea. Hori ebazteko, irizpide hau aplikatu ohi da:

- Mintzagaia subjektua den kasuan, komarik ez idaztea (salbuespen-lizentziak alde batera utzita).
- Gainerako argumentuen kasuan, aukeran uztea mintzagaiaren koma idatzi edo ez (*komenentziaren* arabera, alegia).

Erraz ikusten da albuespeneko jokaera horrek eragiten duen zalantza. Batek dio: «Zergatik ez jokatu subjektuarekin ere besteekin bezala, libre utzirik koma?». Besteak, berriz: «Zergatik ez jokatu besteekin ere subjektuarekin bezala, komarik ez idatziz?». Ez dira zentzugabeak galderok, baina ezin biei batera men egin, eta konpromisozko erdibide hori da usadioa, zalantzak zalantza.

Laburbilduz, sintagma erreferentzial gehienak joan daitezke esaldiaren gunean, galdegai- zein hizpideabar-funtzioan (komarik gabe), edo periferian, mintzagai- zein gehikuntza-funtzioan (gogoratu, hala ere, argumentuak ezin direla gehikuntza izan: **Lagunarentzat erosi du, zapia*):

- (39) Lagunarentzat erosi du zapia merkealdietan.
- (40) Merkealdietan erosi du zapia lagunarentzat.
- (41) Lagunarentzat(,) zapia erosi du merkealdietan.
- (42) Merkealdietan erosi du zapia, lagunarentzat.

Lagunarentzat adjuntuak eman digun joko osoa (galdegai/hizpide/mintzagai/gehikuntza) berdin emango liguke *merkealdietan* adjuntuak.

Zapia objektua aukeratuko bagenu, berriz, sintagma hori gunearen barruan doanekoak bakarrik dira markatu gabeak:

(43) **Zapia** erosi du merkealdietan (lagunarentzat).

(44) Merkealdietan erosi du **zapia** (lagunarentzat).

Markatua eta are bortxatu samarra gerta daiteke «zapia» mintzagai modura ematea:

(45) ?Zapia(,) merkealdietan erosi du (lagunarentzat).

Mintzagaia kontraste esplizituzkoa denean, errazago joko genuke antolaera honetara:

(46) **Zapia**, merkealdietan erosi du [; **kapelua**, berriz,...]

Argumentuak gehikuntza gisa emateak, esan bezala, ez luke zentzurik, zeren, aditzak zuzenean eskatuak izaki, osatzeke geratuko bailitzateke komaren aurrekoa:

(47) *Merkealdietan erosi du (lagunarentzat), **zapia**.

Aurkibide xehea

- aditz-isiltzea* 4.6.
aginterazko esaldiak 2.2.1.a.4.
alborakuntza 3.5.
alokutiboa 3.4.
apozizio-tartekiak 6.8.
asinetona 3.5.
banakariak 5.3.
bi puntuak 2.4.; 4.3.; 6.2.
deikia 3.4.; 6.7.
elkarrizketa-marka 4.8.4.
esaldia 3.2.; 4.; 5.; 6.
esaldi-alborakuntza 6.4.
esaldi-juntadura 2.2.3.f; 6.4.
esaldi-osagaia 6.5.
etenpuntuak 2.5; 4.8.1.
fokua (galdegaia) 3.3.
foku-adberbioak 6.6.1.
galdegaia 3.3.
galdera-marka 2.6.; 4.8.2.
gehikuntza 5.1.
harridura-marka 2.6.; 4.8.2.
hizpideabarra 5.1.
inflexioa 1.1.
izenburuen zehaztapenak 4.3.
juntadura 3.5.
juntagailua 4.7.
katafora 2.4.; 4.3.
koma 2.2.; 5.1.
komatxoak 2.9.; 4.8.5.
lokailua 6.6.
marra bakarra 2.8.
marra pareta 2.7.; 4.8.3.; 6.1.; 6.2.
marrak (bat, bi, hiru) 4.8.4.
mendeko perpausak 5.2.
mezuen abiaburuak 4.3.
mintzagaia 3.3.
ortotipografia-arauak 4.8.6.
paragrafoa 3.1.
paratestua 1.4.
parentesiak 2.7.; 4.8.3.; 6.1.
polisinetona 3.5.
puntu eta koma 2.3.; 4.2.
puntua 2.1.; 4.1.
puntuarte 4.1.
puntuazio-markak 1.2.
rema 3.3.
tartekia 3.4.; 4.7.; 6.
tema 3.3.
topikoa 3.3.
zerrendaketa 5.4.